

# Berrigara



Amodiozko Gutunen

VI. Lehiaketa

# San Balentin

Zatoz gure **Bergarako** instalazioak ikustera

**Olio** aldaketa **behar** duzu?

Erabil itzazu Renault Menu Horiaren abantailak

**3.795**

PTatik aurrera.



**RENAULT**

TALLERES MECA

Amillaga 5, BERGARA. Tf. 76 40 68.



A T E A K      Z A B A L I K

*Zatozte eta ezagutu barrutik!*



*ESKOLA KONTSEILUAK*

*SAN MARTIN HERRI ESKOLA*

*bisitatzera gonbidatzen zaitu*

*otsailaren 14an*

*arratsaldeko 4:30etatik 7:30tara*

**EGITARAUA**

- Erakusketak
- Jokoak
- Dantzak
- Antzerkiak
- Makilaia tailerra
- Txapa tailerra
- Maskarak
- Bideoak
- Informatika
- Pailazoak



**SAN MARTIN AGIRRE**

herri ikastetxea

Boni Laskurain 25  
Telefonoa: 76 21 47

**D** eredua  
**D O A N**



## Mar Floresi amodioz

Markos Balentziaga / Irakaslea

**M**ar salada hori: Bajakiñat mundua biribilla dela aprobetxatuaz, leku berean geldirik luze egoteko ez haizena, eta mareatu be egin barik, baztarrrik baztar habillena.

Hemen, Berrigara guapotu hau zabaltzen dan paraje honetan ipurtariñ, ipurtikara eta ipurterre be igual esaten jotsene hala dabilenari. Baña ez hadi haserretu: mingaiñetik behera ezer motitzeko gauza ez diran agure erreumatikuen ipuñak baño ez dittun eta, jardun horrek danak.

Nere bihotzeko azukre kokkorra, Mar: arrak apartatzen gusto ona daukana zabaldu jon ferixa klase horretan jakittun dan jentiak. Zoo hispanoko ar onenen inguruan hik baño ezagutza hoberik iñork gutxik daukala jñone. Eta jenerua ondo ezagutzen donaren zaratia bolo-bolo zabaldua jabiñ; berbarako, arren odolaren koloreari berari be zoli-zoli begiratzen ei dotsan.

Ai ene, eta hik aukeran, odol azuleko piezak nahixago, gorrikoak baño!

Mar, maitia, sudur pinportatxo horren alde banatan, ezker-eskuma, bi kateme-begi beltz-beltzak dauzkan ama naturaleziak ipiñitta.

Bajakiñat, ondotox jakin be, kate-megi beltzok, oraintxe eta oraintxe be, han, potzuaren beste aldean dagan Etxe Zurira luze-luze eginda dauzkanala, zer berri ote dan jakin miñez.

*"Hobe don Etxe Zuriko apopillo idea kizkurra ahaztia, haren onduan ez don giro oraintxe eta. Gañera, Washington-go neguetan gabak ez dittun kopletan ibiltzen hire moduko gerri-buelta mehekoekin"*

Poxpoliñ horrek, hobe don Etxe Zuriko apopillo idea kizkurra ahaztia, haren onduan ez don giro oraintxe eta. Gañera, Washington-go neguetan gabak ez dittun kopletan ibiltzen hire moduko gerri-buelta mehekoekin.

Mar, hire amodioen tenperatura jakin nahixan, gure Euskadi miñ honetan eguraldi-mutilla dogun Andoni Aizpurren -planta makaleko morroskua don beral- isobara-asuak egunero-egunero zaindu jittunat, eta hire amodio-afruntuen arrastuei be fin asko erreparatu jotsenet. Baña Andonik ez jittun isobarok ondo kontrolatzen, edota bere satellite adiskideak ez hau hi ezagutzen. Alperrik izan don dana!

Urriñeko zero haizen Mar hori: askotan hi nundik nora habillen be ez dakinian, hire izenaren zabalari begiratu, eta begietatik daridan negarrarekin hire apellidu usaintsua erregatzearekin konformatu behar izaten jonat.

Ez adiorik. B

■ barruan



**J. Manuel Jimenez**

Eguzkitiko energia gaietan aditua

*"Egunero erabiltzen ditugun tresnekin gauza interesgarriak lor daitezke"*

8. orrialdean.



**Jokin Guridi**

Piraguista

*"Piraguarekin buelta osoa ematea, norbera urpean sartuta, oso maniobra zaila da"*

22. orrialdean.



**Mainer Zabalegi**

Trikitilaria

*"Niretzat maitasuna zer den? barrutik sutan jartzen duen zerbait"*

29. orrialdean.

# orain dela...

## BERGARAN GERTATUA

**1765.** Otsailaren 6an Euskal Herriaren Adiskideak elkarteak lehenengo batzar orokorra egin zuen Bergaran.

**1945.** Otsailaren 12an Telesforo Aranzadi antropologoa hil zen Bartzelonan. Mundu mailako zientzia elkarte askotako partaide izan zen bergarar hau. Bere ohoretan dute daukaten izena, adibidez, Aranzadi Zientzia Elkarteak eta Aranzadi Ikastolak.

## EUSKAL HERRIAN GERTATUA

**1874.** Otsailaren 11n Don Karlos Espainiako erregegarak Oñatiko unibertsitatea berriz irekitzea erabaki zuen.

## MUNDUAN GERTATUA

**1565.** Migel Legazpik Filipinak aurkitu zituen otsailaren 11n.

## z o z k e t a k

### BONO LOTO

**Eguakitza 6**  
6-9-12-15-23-45 (osag.31/er.8)

**Astelehena 9**  
14-19-22-26-29-44 (osag.28/er.2)

**Martitzena 10**  
9-14-15-24-26-28 (osag.30/er.8)

**Eguaztena 11**  
20-44-45-47-48-49 (osag.35/er.0)

### PRIMITIVA

**Eguena 5**  
3-7-9-14-36-45 (osag.43/er.5)

**Zapatua 7**  
1-8-13-27-40-41 (osag.18/er.6)

**Domeka 8 Gordo**  
2-7-8-9-16-49 (osag.35/er.2)

### ONCE

**Eguakitza 6:** 58.257 (K. seriea: 005)

**Astelehena 9:** 65.493

**Martitzena 10:** 17.896

**Eguaztena 11:** 82.003

### BESTE BATZUK

**Bedelkarreko harakinak:** 5.493

## Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Aste osoan zehar bezala, eguzkia izango da nagusi zapatu eta domekan ere, goiz partean, laino batzuk agertuko zaizkigun arren. Haizeak hegotik joko du eta tenperaturak gora egingo du. Eguraldi ona, beraz, astebururako.

## Ilargiaren aldiak

Ilbehera: Otsailak 19

Ilberri: Otsailak 26

Ilgora: Martxoak 5

Ilbete: Martxoak 13

## Eguzkia

Domekan



Sortu: 08:11



Gorde: 18:51

## Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max.	min.	euria
	°C	°C	l/m <sup>2</sup>
<b>Eguena 5</b>	9	2	-
<b>Eguakitza 6</b>	15	0	-
<b>Zapatua 7</b>	15	3	-
<b>Domeka 8</b>	20	0	-
<b>Astelehena 9</b>	18	0	-
<b>Martitzena 10</b>	17	2	-
<b>Eguaztena 11</b>	19	0	-

## farmaziak

### Eguakitza 13

ESTELLA.

Matxiategi 5, Bergara. Tf. 76 19 63.

### Zapatua 14

MOZOS.

San Pedro 4, Bergara. Tf. 76 12 15.

### Domeka 15

MOZOS.

San Pedro 4, Bergara. Tf. 76 12 15.

### Astelehena 16

CAMACHO. 22:00ak arte

Oxirondo 4, Bergara. Tf. 76 11 74.

AZKOAGA. 22:00etatik aurrera

Ferrerias 1, Arrasate. Tf. 79 15 15.

### Martitzena 17

PUY. 22:00ak arte

Barrenkalea 25, Bergara. Tf. 78 16 87.

ESPAÑOL. 22:00etatik aurrera

Iturrioz 17, Arrasate. Tf. 79 14 88.

### Eguaztena 18

GUALLAR. 22:00ak arte

San Antonio 5, Bergara. Tf. 76 11 05.

CORCUERA. 22:00etatik aurrera

Elkano 2, Arrasate. Tf. 79 22 26.

### Eguena 19

ESTELLA. 22:00ak arte

Matxiategi 5, Bergara. Tf. 76 19 63.

IRIZAR. 22:00etatik aurrera

Erguin 11, Arrasate. Tf. 79 12 39.

## ogia

**Domeka 15:** Konde.

## eskela

## Inazia Elkoroiribe Jauregi

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailak 15, eguerdiko 12:30etan, San Pedron.

Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko familiakoentz partez.



## Telefonoak

### Osasuna / Larrialdia

SOS deiak	008
DYA	78 71 57
Gurutze Gorria	76 55 76
Larrialdia	76 12 94
Anbulantzia	55 49 62
Udalzaingoa	77 91 06
Ertzaintza	76 53 40
Suhiltzaileak	78 28 00
Osasun Etxea	76 24 40
Arrasateko ospitala	79 53 00
Asepeyo	76 16 43
Pakea	76 13 49
Alcer	76 12 62
Angiozarko medikua	78 90 27
Antzuolako medikua	76 62 23
HIES Ekimena	79 26 99
Odol emaleak	76 16 24

### Garraioak

Euskotren	45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	76 19 50
RENFE	28 35 99

### Udala

Udaletxea	77 91 00
Euskara Zerbitzua	77 91 66
Igerilekuak	76 20 51
Kirol Zerbitzua	77 91 67
Kultur Etxea	77 91 58
Liburutegia	77 91 62
Mizpirualde Egoitza	76 13 68

### Prensa berriemak

Berrigara	76 03 97
Egin	76 45 52
El Correo	76 10 90
El Diario Vasco	76 81 57

### Bestelakoak

Bedelkar	76 04 68
Epaitegia	76 14 92
Erregistroa	76 13 15
Jardun	76 36 61
Jubilatuen Etxea	76 21 40
Mendi Nekazaritza	76 25 47
Musika Eskola	76 57 80
Notaritza	76 10 73
Postetxea	76 26 85
Xipizaro Iudoteka	76 23 76

# zorion agurrak



**Irune Gomez**  
Gaur, otsailak 13,  
18 urte. Zorionak  
koadrilakoen partez!



**Aitor Garcia**  
Otsailaren 12an 22  
urte. Zorionak osaba  
eta izebaren partez!



**Ane Olabide**  
Otsailaren 9an  
23 urte. Zorionak  
Mireiaren partetik!



**Rosa Flores**  
Otsailaren 12an  
28 urte. Zorionak!  
(Izaskun eta Txomin)



**Euxebi Usabiaga**  
Otsailaren 11n  
84 urte. Zorionak  
biloben partez!



**Enara Iglesias**  
Otsailaren 16an  
18 urte. Zorionak  
lagunen partetik!



**Agurtzane Crespo**  
17 urte bete zituen  
otsailaren 4an.  
Zorionak koadrilako-  
en eta familiako-  
partetik!



**Maite Larrañaga**  
Joan zen domekan  
bete zituen urteak.  
Zorionak lankideen  
partetik!



**Eider Beistegi**  
Otsailaren 12an  
14 urte bete zituen.  
Zorionak  
koadrilako-  
partetik!



**Ander Laborda  
Juldain**  
Gaur, otsailak 13,  
14 urte betetzen  
ditu. Zorionak  
famiariaren partetik!



**Esther  
Ortiz de Zarate**  
Otsailaren 12an  
21 urte bete zituen.  
Zorionak lagun-  
partetik!



**Jon  
Ortiz de Zarate**  
Otsailaren 13an  
18 urte betetzen  
ditu. Zorionak bere  
arrebaren partetik!



**Balentin  
Gorosabel  
Larrañaga**  
Otsailaren 14an  
81 urte beteko ditu.  
Zorionak Edurne!



**Edurne  
Gorosabel  
Atorrasagasti**  
Otsailaren 14an  
14 urte beteko ditu.  
Zorionak aitxixta!



**Nere Arenaza**  
Otsailaren 12an  
24 urte bete zituen.  
Zorionak zaharroi,  
zure koadrilako-  
partetik!



**Jone Agirrezabal**  
Otsailaren 19an  
4 urte beteko ditu.  
Zorionak  
Garazi, amatxo eta  
aitaxoren partez!



**Sandra Bretaña**  
Otsailaren 18an  
9 urte beteko ditu.  
Zorionak Ana eta  
Maitaneren partez!



**Ane Agiriano  
Larrañaga**  
Otsailaren 15ean  
5 urte beteko ditu.  
Zorionak etxeko-  
partez Ane!



**Maria Josefa  
Ormazabal**  
55 urte betetzen  
ditu gaur, hilaren  
13an. Zorionak Ne-  
rearen partez!



**Xixili Urkizu**  
Otsailaren 2an 96  
urte bete zituen.  
Zorionak biloba  
denen partetik!



**Asier Manso**  
Otsailaren 5ean  
7 urte bete zituen.  
Zorionak zure  
lehengusu losuren  
partetik!



**Usue Sotil**  
Otsailaren 12an,  
eguna, 11 urte  
egin zituen.  
Zorionak etxeko-  
partetik!



**Karlos Polanco**  
Otsailaren 17an,  
martitzena, 39 urte  
beteko ditu.  
Zorionak Naiararen  
partez, "Carla"!



**Nora Casquero  
Oiarzabal**  
Otsailaren 15ean,  
domeka, urtebete  
beteko du. Zorionak  
etxeko-  
partetik!

## jaioetakoak

**BERGARA**  
**Julen Herrero Garai**  
Otsailak 1  
**Josu Fernandez Goenaga**  
Otsailak 3  
**Miren Carnicero Padilla**  
Otsailak 6  
**Joseba Carnicero Padilla**  
Otsailak 6  
**Gorka Kortabarria Perez**  
Otsailak 7

## hildakoak

**BERGARA**  
**Maria Elguero Losada**  
Otsailak 5, 81 urte  
**Eugenia Regil Agirre**  
Otsailak 7, 88 urte

**ANTZUOLA**  
**Antonio Etxaniz Mazorriaga**  
Otsailak 11, 75 urte  
**Jose Mari Eguren Aranbarri**  
Otsailak 11, 53 urte


## bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

### Aizeri batzen

EHizatutako azeria aldean hartu eta etxe etxe diru eske ibiltzea. Antzinako ohitura. Azkonarrekin, basakatuekin eta beste basapizti batzuekin ere ibili ohi zen.

- Markiko Tomas etorri da aizeri batzen.



## PESA autobusak

**Bergara-Antzuola.** Lanegunak: 08:00, 09:00, 11:00, 14:00, 17:00, 18:00, 20:30. Zapatuak: 08:00, 09:00, 14:00, 18:00, 20:30. Domeka eta jaiegunak: 09:30, 10:00, 18:00, 18:30.

**Antzuola-Bergara.** Lanegunak: 08:30, 09:40, 16:40, 17:15, 18:00, 20:40. Zapatuak: 08:30, 18:00, 20:40. Domeka eta jaieg.: 10:00, 18:00.

**Bergara-Arrasate-Eskoriatza.** Lanegunak: 07:35, 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30\*, 21:05\*, 21:35\* (\*Arrasateraino). Zapatuak: 09:35, 11:35, 13:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30\*, 21:05\*, 21:35\* (\*Arrasateraino). Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:35, 16:35, 18:35, 21:05\*, 21:35\* (\*Arrasateraino).

**Bergara-Gasteiz.** Lanegunak: 06:45, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 16:00, 19:00, 19:15, 21:15. Zapatuak: 07:15, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 21:15. Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 17:15, 19:00, 19:15, 21:15.

**Gasteiz-Bergara.** Lanegunak: 05:45, 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Zapatuak: 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 09:00, 10:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.

**Arrasate-Bergara.** Lanegunak: 06:05, 06:30, 07:05, 07:20, 08:05, 08:20, 09:05, 09:20, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. Zapatuak: 07:20, 08:05, 08:20, 10:05, 12:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. Domeka eta jaiegunak: 09:20, 09:50, 11:20, 13:05, 15:05, 17:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20.

**Bergara-Oñati.** Lanegunak: 07:35, 09:35, 13:35, 16:35, 18:35, 19:35, 20:45. Zapatuak: 20:45. Domeka eta jaiegunak: ez dago zerbitzurik.

**Oñati-Bergara.** Lanegunak: 07:10, 08:00, 13:10, 13:55, 16:00, 17:10, 19:10. Zapatu, domeka eta jai egunak: ez dago zerbitzurik.

**Bergara-Eibar.** Lanegunak: 06:20, 07:20, 08:20, 09:20, 09:35, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Zapatuak: 08:20, 09:35, 10:20, 12:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Domeka eta jaiegunak: 09:35, 11:35, 13:20, 13:35, 15:20, 17:20, 17:35, 19:20, 19:35, 20:20, 21:35.

**Eibar-Bergara.** Lanegunak: 06:15, 07:00, 08:00, 09:00, 10:00, 10:45, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Zapatuak: 06:45, 09:00, 10:45, 11:00, 13:00, 15:00, 14:45, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Domeka eta jaiegunak: 08:45, 10:45, 14:00, 14:45, 16:00, 16:45, 18:00, 18:45, 20:30, 21:00.

**Bergara-Donostia (Autopistatik).** Lanegunak: 06:45, 08:35, 13:35, 14:35, 15:35, 19:35. Zapatuak: 07:35, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. Domeka eta jaiegunak: 10:05, 19:35.

**Bergara-Donostia (Tolosatik).** Lanegunetan: 09:00, 18:00. Zapatuak: 09:00, 18:00. Domeka eta jaiegunak: 10:00, 18:00.

**Donostia-Bergara (Autopistatik).** Lanegunak: 05:45, 08:15, 12:30, 15:00, 18:00, 19:30, 20:45. Zapatuak: 08:15, 12:30, 18:00, 19:30, 20:45. Domeka eta jaiegunak: 18:00, 20:45.

**Donostia-Bergara (Tolosatik).** Lanegunak: 07:00, 16:30. Zapatuak: 07:00, 16:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 16:30.

**Bergara-Bilbo.** Lanegunak: 06:30, 08:40, 14:30, 18:10. Zapatuak: 07:15, 08:40, 14:30, 18:10. Domeka eta jaiegunak: 10:10, 14:30, 18:10, 19:15.

**Bilbo-Bergara.** Lanegunak: 08:00, 12:30, 17:00, 20:00. Zapatuak: 08:00, 17:00, 20:00. Domeka eta jaiegunak: 09:00, 12:30, 17:00, 19:30, 21:00.

## ANTZERKIA

► Kili Kolo antzerki taldeak Rafael Gonzalez-en "Lovo" antzezlan estreinatuko du zapatuan Eibarko Hezkuntza Esparruan, 20:30etan.

## MUSIKA

► La Barberia del Sur, gaur eguakitzan Elorrioko Arriola Kultur Aretoan, 22:30etan.

► 2 kate eta Bad F-Line taldeak zapatuan, 22:00etan Jam aretoan. 700 pezeta.

► La Destileria eta MDH, zapatuan, 22:30etan Oñatiko Gaztelekuan.

► Paco del Pozo Carpintero zapatuan Elorrioko Arriola Aretoan, 20:00etan.

## ERAKUSKETAK

► Martxe Aranaren oleo eta guache erakusketa.

► Gure Ametsa elkartearen 25. urteurrena ospatzeko ekitaldien barruan, San Antonioko auzoari buruzko margo erakusketa elkartearen bertan zabalik, egunero 19:00etatik aurrera.

► Eguzki bidezko asmakariak erakusketa Kultur Etxean, domekara arte. Zapatu eta domekan,

### ERAKUSKETA

## Berpizkunde Hiritarra

### Udaletxeko Pleno Aretoan

Noiz: gaur, eguakitzan, 19:30etan inauguratuko da eta hil bukaerara arte izango da zabalik.

Berpizkunde Hiritarra izenburuko erakusketa zabalduko da gaur, eguakitzan, arratsaldeko 19:30etan Udaletxeko Pleno Aretoan. Bertan, Bergarako Udaletxearen birgaitzeari buruzko planoak eta argazkiak ikusi ahal izango dira. Horrez gain, Donostiako Konstituzio plaza, Baionako azoka, Ziburuko San Bixente eskola eta Irungo Junkal elizaren inguruan sortutako auzo berriari buruzko argazki eta planoak ere ikusgai izango dira, Europako beste hiri batzuetako arkitektura lanekin batera. Erakusketa Donostian eta Irunen egon eta gero heldu da Bergara eta, ondoren, Logroñora eramango dute.

Bergaran ikusiko duguna, 1996an Boloniako arkitektura bienalean antolatu zen erakusketaren zati bat da. Bienal hartan, Europako hainbat hiriko arkitektura lanak erakutsi ziren, tartean Bergarako Udaletxea. Euskal Herriko bost hiri aukeratu zituzten

erakusketa hartarako: Donostia, Irun, Baiona, Ziburu eta Bergara. Bost hirion aukeraketa Antton Martinez de Salazar, Deustuko arkitektura irakaslea eta Bergaran antolatu den erakusketa honen koordinatzailea denak, Maurice Coulotte historiagile eta arkitektoak eta Dominique de Launay argazkilariak egin zuten.

Boloniako erakusketa hura, "Berpizkunde Hiritarra" izenburuarekin aurkeztu zena, Europako Batzarrak bultzatu zuen, Europako kultura eta ondasunaren babesarako Raphael programaren bitartez eta Europako beste hainbat erakunde eta elkareren laguntzaz. 1996an Boloniako arkitektura erakusketan aurkeztu ondoren, Istanbul, Oslo edota Bruselasetan ere izan da ikusgai eta Lisboako Erakusketa Unibertsalean ere erakutsiko da. B



Antton Martinez de Salazar, erakusketaren koordinatzailea.

12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

## IKASTAROAK

► Euskal dantzak, gaur egungo dantza (jazz dantza

barne) eta Karibeko dantzei buruzko ikastaroak, Arrasateko Gazte Zerbitzuaren eskutik. Izenematea lehenbailehen 77 00 65 telefonoan.


► Tai Chi, Chi Kung, yoga

eta meditazioari buruzko ikastaroa Zestoako Sastarrain baserrian, martxoaren 6tik 8ra bitartean. 12.500 pezeta, klaseak, alojamendua eta janaria (janari begetarianoa) barne. Izenematea otsailaren 27a baino

## ZUBIETA elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA,  
ERA GUZTIETAKO  
INSTALAKUNTZAK.

Kruz Gallastegi 2 behea  
☎ 76 23 48



Ospatu SAN BALENTIN EGUNA Tartufo jatetxean afari aparta eginez eta ondoren dantzaldiarekin

San Juan auzoa, Elgetarako bidea, Bergara. Tf. 76 35 51.

Enkarguak hartzen dira

...eta festa  
zaituz  
arautuzteetarako!

lehen. Argibideak 71 41 91 telefonoan.

## LEHIAKETAK

► Arrasateko Udalak martxoaren 8an ospatuko den Emakumearen egunerako kartel lehiaketa antolatu du. Kartelen neurriak, gehieenez, 50x75 zm.koak izango dira eta teknika librean izango da. Kartelek testu hau eraman beharko dute: "Martxoak 8: denok batera". Irabazleak 50.000 pezeta jasoko ditu. Kartelak otsailaren 18a baino lehen jasoiko dira Arrasateko Udaleko Emakume Sailean. Argibideak 79 41 39 telefonoan.

## DEIAK

► Bergara Hiria I. Karate Txapelketa (infantil maila). Domekan, goizeko 11etatik aurrera Udal Pilotalekuan. Sarrera dohain. Giartzu gimnasioak Gipuzkoako Karate Federazioarekin batera antolatuta.

► Bergarako EAJk ez ohizko Uri Batzarra egingo du egunean, hilak 19, 20:00etan Batzokiko aretoan. Alderdikide guztiei dei egiten zaie Batzarrera joan daitezen.

► Formigalera eski irteerak otsailaren 28an eta martxoaren 1ean; martxoaren 7 eta 8an eta, azkenik, martxoaren

19tik 22ra. Alpeetara irteera apirilaren 10etik 17ra. Argibideak eta izenematea Pol-Poleko bulegoan (76 48 51), astelehenetik ostegunera, 19:00etatik 20:30etara.

► Diputazioak 65 urtetik gorakoei zuzendutako terminalismo programa jarri du martxan. Aurten Zestoa, Arnedillo, Fitero eta Lierganes dira eskaintzen diren bainuetxeak. Argibideak 900 43 43 43 telefonoan.

► Jubilatuei zuzendutako "Tarteko" programaren barruan, martxoaren 9tik apirilaren 7ra bitartean Alcoceberren (Castellon), egonaldia antolatu da. Izenematea otsailaren 17a baino lehen, 76 21 40 telefonoan.

► Bergarako jaietan Bideberrin izango diren kontzertuak antolatzeko interesa dutenei martitzenean, hilak 17, 19:00etan Kultur Etxean egingo den bileran parte hartzeko dei egiten zaie.

► Odol ateraldia eguaztenean, otsailak 18, 18:30etan Seminarioko lokalean.

## KINTADAK

► 1958tik 62ra bitartean Angiozarren jaiotakoen aforia martxoaren 28an. Izenematea 78 22 80 eta 76 54 81 telefonoetan.

## Z I N E A

### KARTELDEGIA

#### BERGARA. Novedades Titanic

Eguakitza: 22:30.  
Zapatua: 17:00, 22:30.  
Domeka: 17:00, 21:00.  
Astelehena: 19:30.  
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30.

#### El mundo perdido

Domeka: 11:30.  
El chef enamorado

Eguena, zine kluba: 20:00.  
ARRASATE. Alai zinema

#### Titanic

Eguakitza: 18:30, 22:00.  
Zapatua: 18:30, 22:00.  
Domeka: 18:30, 22:00.

Astelehena: 18:30, 22:00.  
Martitzena: 18:30, 22:00.

#### ARRASATE. Amaia Kansas City

Eguena, zine-kluba: 21:30.  
EIBAR. Unzaga

#### El desafio

Eguakitza: 19:30, 22:15.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.  
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15

#### EIBAR. Rialto Pactar con el diablo

Eguakitza: 19:30, 22:15.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

#### OÑATI. Santana L.A. Confidential

Eguakitza: 22:30.  
Domeka: 22:30.  
Astelehena: 19:30.

#### Baraka

Eguena, zine-kluba: 20:00.  
ANTZUOLA. Gazinema

#### 2013: Rescate en L.A.

Eguakitza: 22:00.  
Liberad a Willy 3

Domeka: 16:30.

### TITANIC

Zuzendaria: James Cameron.

Aktoreak: Leonardo DiCaprio eta Kate Winslet.

1912ko apirilean, 1.500 bidaiari zeramatzen Titanic unzia itsasoratu zen. Titanic hondoratu zenetik, *Rose DeWitt Bukater* aristokraziako gaztea (Kate Winslet) eta *Jack Dawson* (Leonardo DiCaprio) abenturazalearen arteko amodioaren sekretuak itsas hondoan gorde dira...

### EL MUNDO PERDIDO

Zuzendaria: Steven Spielberg.

Aktoreak: Jeff Goldblum eta Julianne Moore.

Parke jurasikoa suntsitu zenetik lau urte igaro ondoren, *Malcolm* doktorea (Jeff Goldblum) zerbait berezia aurkitzear dago: Costa Ricako irla batean dinosaurioak askatasun osoz bizi eta hazten dira. Estatu Batuetan zoo bat jarri nahi dutenak eta dinosaurioak bertan mantentzearen aldekoen artean borroka sortuko da.

### EL CHEF ENAMORADO

Zuzendaria: Nana Djordjadze.

Aktoreak: Pierre Richard, Nino Kirtadze eta Micheline Presle.

Iazko Oscarretan atzerritar filme onenen artean izendatu zuten produkzio hau. *Pirosmani* pintorearen erakusketa prestatzen ari dela, *Antonik Pascal Ichac* sukaldariaren eskuizkribu bat topatuko du. *Antonon* amak eta *Pascalek* 1920 urte inguruan izandako gora-beheren berri izango du...

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.



JAM kafetegian sekulako pintxoak, ogitartekoak...

Eta zapatu gauean, ordu txikietan,

# sekulako oilaskoak!

Astebarruan ere hartzen ditugu enkarguak

Tf. 76 35 81

## SAL TSA ETA MERENGE IKASTAR OAK

Martxoaren 1etik udara arte.

Astelehen eta ostegunetan

19:30-20:30 edo 20:30-21:30

Prezioa, 4.000 PTA,

JAM Klub-eko bazkideek 3.500.

IZENA EMATEA: JAM ARETOA,

TF. 76 35 81.

**Eguzkitiko energia gaietan aditua den Jose Manuel Jimenez hizlari izan dugu Bergaran. "Ingenios solares" (Pamela) liburua kaleratu du eta bertan azaltzen dituen eguzki bidezko asmakariak ikusgai izango dira domekara arte Kultur Etxean.**

**G.** Zein erabilpen daukate Kultur Etxean ikusgai dauden aparailuek?

**E.** Etxean erabiltzeko aparailu arruntak dira gehienak; tximinia, kartoizko sukaldia, labea, ur-berogailua... Jostailu batzuk eta beste hainbat tresna ere badira tartean. Baztertutako materialekin eta imajinazio piska batekin gauza interesgarriak egin daitezkeela frogatu nahi izan dut. Edozeinek egin ditzake etxean erabiltzeko eta ez dute lan handirik eskatzen. Gainera, primeran dabilta.

**G.** Eguzkitiko energiaren aprobetxamendua etxeko esparrura mugatzen da gaur egun?


**E.** Etxeko erabileran errentagarritasun eta etekin handiagoa aterako diogu. Baina oraindik ere gutxi promozionatu da. Eskala handi ikerkuntza eta garapenean asko inbertitu da, baina ez da gauza bera gertatu eguneroko bizitzan berebiziko garrantzia duten sukalde edota ur-berogailuan kasuan.

Orain 15 bat urte energia eolikoarekin gertatu zen bezala, eguzkitiko energiarekin ere emaitza interesgarriak lortzen ari dira Kalifornian eta inbestigatzeko sentsibilitatea duten beste hainbat herrialdetan. Horrek esfortzu ekonomiko eta politikoa eskatzen du eta hemen ikerkuntzarako dirurik jartzen ez den bitartean antzerria jarraituko dugu.

JOSE MANUEL JIMENEZ

Eguzkitiko energia gaietan aditua

*"Egunero erabiltzen ditugun tresnekin gauza interesgarriak lor daitezke"*



Jimenezek eguzkitiko energia aprobetxatzeko metodoak proposatzen ditu.

**G.** Zeintzuk dira eguzkitiko energiaren abantailak eta eragozpenak?

**E.** Abantailak asko dira, energia aurreztea tartean. Eragozpenen artean nagusia eguzkiaren menpe egotea litzateke. Bestalde, gaur egun eguzkitiko energiak ez ditu oraindik arazo batzuk gainditu, eta eguzkiak bidaltzen duen energia

***"Etxeko erabileran errentagarritasun eta etekin gehiago aterako diogu eguzkitiko energiari. Baina oraindik gutxi bultzatu da"***

guztia aprobetxatzeko zailtasunak daude; energia jasotzeko instalakuntza handiak behar dira enpresetan, esate baterako. Horregatik, eguzkitiko energiak atendi ezin dituen beharretarako, erregai fosilak eta beste eratako zentral energetikoak erabiliko ditugu, baina petrolioia ezin da edozein modutan erre. Energia aurreztera jo beharra dago.

**G.** Gaur egun zeintzuk dira eguzkitiko energia hobeto erabiltzen duten herrialdeak?

**E.** Nekazaritzan (negutegi eta horrelakoetan) israeldarrak oso aurreratuta daude baina eguzkitiko energiaren erabileran greziarrekin geratzen naiz; eskala txikietan gauza interesgarriak lortu dituzte eta, esate baterako, bost etxebizitzatik batean eguzkitiko berogailuak erabiltzen dituzte ura berotzeko. Administrazioaren aldetik laguntza handia eman da Grezian. Bestalde, ikerkuntza eta etorkizuneko ikuspegiari begiratuta, estatubatuarrak dira onenak, Kalifornia aldean asko bultzatzen ari dira eguzkitiko energia. Eguzkitiko ekipoak eta energia berriztagarriarekin industria militarra alde batera lagatzen ari dira eta hori horrela bada, etekinak ematen dituelako izango da. Lehenago edo beranduago hona ere helduko da.

**G.** Euskal Herrian eguzkitiko energia aprobetxatzeko baldintza egokiak ematen dira?

**E.** Ez dut esango baldintza onenak ematen direnik, baina nahiko ondo gaude. 50. paralelotik behera eguzkitiko energia nahikoa intentsitatekoa da eta, beraz, nahiko banda onean aurkitzen gara, urtean 1.600 eguzki ordu ditugula kalkulaten da eta. B



# Joan XXIII.a plaza eraberritzeko lanak martxo inguruan hasiko dira

## 23 milioi pezeta bideratuko dira plaza urbanizatzeko

**Joan XXIII. a plazaren urbanizaziorako Bergarako Udalaren eta Mauricio Arregi eraikuntza enpresaren arteko hitzarmena onartu zuen aho batez Udaltzak joan zen astelehenean.**

Hitzarmenaren arabera, Udalak eta Mauricio Arregik erdibana ordainduko dute Joan XIII.a plazaren urbanizazioaren kostua, 26 milioi pezeta. Eraikuntza enpresak Fraisko zuriko etxe berriak egin ditu eta etxearen atzealdea urbanizatzeko konpromisua hartu zuen orain dela pare bat urte proiektua onartu zenean.

Zoru berria jarriko da (kolore gorrikoa) eta oinezkoentzako espaloiak zabaldu egingo dira. Esate baterako, Zer Nai kafetegitik, Irizarerraino zuzen joateko kalea zabalduko da eta Fraisko zuriko 1eko atzealdetik Irizarerraino oinezkoentzako bakarrik izango da. Bestalde, autoentzako sarrera eta irteera bakarra izango da, oraingo bera, hau da, Zer Nai kafetegia ondo tuneltxotik.



Plazaren erdian, orain dagoen arraultza formako lorategiaren ordean, trapezio itxuradun beste bat jarriko da eta honen inguruan aparkalekuak joango dira. Plaza osoan, guztira, 22 autorentzako aparkalekuak egingo dira, beraz, orain baino auto gutxiago sartuko dira baina era ordenatuagoan: Telesforo Aranzaditik plazarako sarrera-irteeran,

esate baterako, ezin izango da aparkatu; bestalde, garaje, biltegi edota lantegietarako sarrerak libre geratuko dira, beraz, hauen aurrean ezin izango da aparkatu eta pibote batzuk jarriko dira.

Bestalde, Iberdueroren egoitzaren parean plazatxo borobil bat egingo da eta hemendik Irizar kaleraino ere zoru berria jarriko da. Hortaz, bi irteera izango di-

ra plazatik Irizar kalera: oraingoa eta Fraisko zuriko etxe berrien atzealdekoa. Bi irteera hauen erdian lorategi txiki bat jarriko da.

Joan XXIII.a plaza berriaren argiteria berria ipiniko da eta, honela, bederatzi farola berri jarriko dira.

Obrak martxo inguruan hastea espero da eta hiru bat hilabete beharko dira lanak amaitzeko. B

### ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa... Leihoak, atek, manparak...

**Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik**

Erakusketa: Masterreka 14 behea BERGARA  
Tf.: 76 55 02 Faxa: 77 11 30



OZAETA JAUREGIA  
Tf.: 76 10 55 Faxa: 76 20 29



**LASA**  
Jatetxea

Paper pintatuak - Pinturak

**A. ZANGITU**

ORDUTEGI BERRIA:  
8.00-13.00 ETA 15.00-20.00

☎ 76 19 54 BERGARA  
IRU: ☎ 79 11 71 ARRASATE



Ikastetxean euskararen presentzia areagotu eta euskal giroa bultzatu nahi du ikastetxeko guraso talde batek.

## Herritarrei atek irekiko dizkie zapatuan San Martin eskolak

### Guraso talde batek euskal giroa bultzatu nahi du

**San Martin** ikastetxe publikoko irakasle eta arduradunek eskolaren funtzionamendua eta bertan antolatzen diren ekintzen berri emango diete zapatu honetan haur eta gurasoei. Besteak beste, erakusketak, jokua, dantzak eta antzerkia antolatuko dira arratsaldeko 4:30etatik 7:30etara.

Hori dela eta, San Martin ikastetxe publikoan ikasten ari diren haurren guraso talde batek eskolari buruzko

azalpenak eman zituen eguaztenean Kultur Etxean. Guraso talde honek herritarren artean zabaldua dagoen ideia, alegia, eskola publikoa eta erdaldunen eskola parekatzen dituen, uxatu nahi dute. Eskolan euskararen presentzia areagotu eta euskal giroa lortu nahi dute eta, horretarako, egiten ari diren esfortzuen berri eman nahi dute, "herritar askok ez baitu eskolan egiten den lana ezagutzen".

Guraso taldeak galde-tzen du ea zergatik ez den San Martin ikastetxea aukeratzen Lehen Hezkuntza egiteko, BUP edo DBH egiteko Institutua aukeratzen bada, biek ere eskola publiko bera osatzen dutela jakinda. Bukatzeko, eskola publikoaren irudia aldatzea denon eskutan dagoela adierazten dute eta herriko gurasoak euren haurrak eskola publikora eramatera gonbidatzen dituzte. B

## Epaitegiko langileen kontzentrazioa

Euskal Autonomi Elkarteko Epaitegi guztietako langileen deia jarriz, Bergarako epaitegiko dozena bat lagun bildu ziren eguaztenean, epaitegi aurrean, Bergarako epaitegiko idazkariari egindako eraso-erengatik protestatzeko. Joan zen otsailaren 1ean Bergarako hirugarren epaitegiko idazkariaren autoa erre zuten ezezagun batzuk Koldo Eleizalde kalean. Era berean, Euskal Herritik joateko eskatuz mehatxuak jaso zituen. B

## Etxanizen aldeko manifestazioa

Bergarako Amnistia-aren Aldeko Komiteak datorren otsailaren 21ean, bihar zortzi, eguerdiko 12:30etan Jose Mari Etxaniz preso bergarra askatzea eskatzeko manifestazio ixilerako deia zabaldu du. Etxanizek 18 urte beteko ditu kartzelan datorren eguenean eta ezarritako kondanaren hiru laurdenak 1995ko otsailean bete zituen. B

**PANA DE ROKIA**  
**IAIETXEAI**

Kontxi Idigoras  
Asteburuetan  
bertako babak eta sabieskia

SALBADOR 10 ELGETA Tlf. 76 82 73



**GAZTELU**  
**BURDINAKI DENDA**

Mintegi 1 • Tf. 76 32 48 / 76 34 50 • BERGARA

**DENA**  
**100etik**

**ZURE OPARIENTZAKO**

Simon Arrieta 3

# Angiozarko frontoia berrizteko lanak martxoan hasiko dira


## la 52 milioi frontoia estali eta aldagelak egiteko

Angiozarko pilotalekua estali eta harmaila berriak eta aldagelak egiteko obren adjudikazioa Berri enpresari ia 52 milioi pezetan adjudikatzea onartu zuen Udaltzako aho batez astelehenean. Lanak hilabete barru hasiko dira eta lau hilabeteko epea izango dute obrak egiteko. Plenoan, 14 puntu onartu ziren, tartean San Migel kaleko 1 eta 3 etxeak bost milioi pezetan erostea; San Antonio 10eko bigarren pisua eta estalki azpia 3.100.000 pezetan erostea eta Urteaga 6ko etxeari erantsitako eraikinaren behe eta lehen pisuak 6.650.000 pezetan erostea.

Bestalde, San Antonioko ermitari buruz hartutako erabakiaren inguruan eztabaida izan zen oposizioaren eta gobernu taldearen artean. San Antonioko bideturzetik gertu, Movillasenak

ziren lursailetan, eraikiko diren etxeetan 99 metro karratuko lokala lagako dio Udalak San Pedro parrokiari, botatuko ermitaren orde. Jesus Mari Garitano HBko zinegotziak, Uhola errekaaren ubideratze lanak egiteko botako diren etxeen jabeen konpentsazioetan LKS enpresaren balorazioa

kontutan izan dela eta ermitarako, ostera, gobernu taldearen irizpidea erabili dela salatu zuen eta ermita zaharraren orde eraikin berri bateko lokal bat ematerakoan Udala galtzen irtetzen dela esan zuen. Puntu hau EAJ, EA eta PSE-EEren aldeko botuekin eta HBkoen kontrakoekin onartu zen. B



Angiozarko frontoia egoera kaskarrean dago.

## Bost bergararren kontrako epaia ez da eman oraindik

Joan zen asteko Berrigarren epaileak bost bergarari 860.000 pezetako isuna ezarri zizkiela zabaldu genuen orrialde hauetan. Informazioa ez zen zuzena, urtarrilaren 29an Donostian izandako epaiketaren fiskalak eskatu zuen zigorra baitzen 860.000 pezetako isuna. Ertzaintza iraintzeagatik 14 hilabetetan zehar, egunero 200 pezetako isuna ezartzea eskatu zuen fiskalak. Defentsaren abokatuak, berriz, bost enkausatuen absoluzioa eskatu zuen, bost bergararrei egozten zitzaizkien delitua egin zutenik epaiketaren frogatu ez zela argudiatuz.

Epaileak sententzia egun gutxi barru emanago du. Lerro hauen bitartez, barkamenak eskatu nahi dizkiegu epaitutako bost bergarar hauei eta beren ingurukoiei, notizia zuzen ez argitaratzeagatik. B

### IBARGUREN PENTSUAK

BIONA pentsuen biltegia, BIOTER produktuak, haziak eta bestelako nekazar produktuak

San Pedro 3 Tf. 76 23 79



## Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATEGIA, SELF-SERVICE-a

Barrenkalea 31

Tf. 76 20 02

BERGARA

## MUJIKA

### Jantzidenda

Barrenkalea 1 Tf.: 76 29 91

## YAZKI

UME GAZTE  
Neska eta mutil

Irizar 3 Ibagari 8  
☎ 76 16 14 ☎ 76 54 73

## LAZKANO

Oinetakoak

Barrenkalea 15  
☎ 76 25 03

## AGIRREBEÑA

oinetakoak  
arropa denda  
lenzeria

Urteaga 5 ☎ 76 18 29

# Berrigara

311 zenbakia,  
1998ko otsailak 13.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara  
Telefonoa: 76 03 97. Faxa: 76 29 77  
E.mail: berrigar@sendanet.es  
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Eneko Azkarate.  
Erredakzioa: Edu Mendibil,  
Mikel Elkorobereziabar. **Maketazioa:**  
Iñaki Iturbe. **Publizitatea:** Kristina  
Romero. **Harpidetza:** Gorka Elortza.  
**Testuen zuzenketa:** Estepan  
Plazaola, Alex Labaien. **Erredakzio  
kontseilua:** Miguel Angel  
Elkorobereziabar, Alex  
Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:**  
Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon  
Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.  
**Kolaboratzaileak:** Juan Martin  
Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari  
Agirre, Imanol Sorondo.  
**Banaketa:** Txantxangorri taldea.  
**Inprimategia:** Gettu Koop.  
Elk. (Zubillaga, Oñati).

Azaleko argazkia:  
Eneko Azkarate.

Tirada: 5.100 ale.

Copyright: BERRIGARA.  
Lege gordailua: SS 50/91.  
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen eta  
iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Berrigarako  
Udala



Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia



Eusko  
Jauriaritzako  
Kultura saila

## gutunak

**Iritzi, protesta edo desioaren bat adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Postaz edo eskuan: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigar@sendanet.es (Gutunak identifikatu egin behar dira).**

### BOST BERGARARREN EPAIKETARI BURUZKO ZUZENKETA

Bergarako biztanle eta Berrigarako irakurle bat nauzue eta joan den urtarrilaren 29an epaitutako bost gazte hauetako baten gurasoa, beraz, epaiketa horretan gertaturikoaren jakitun zuzena:

1. Joan den urteko otsailaren 11n nere semeak jaso zuen denuntzia irakurri nuelako.

2. Horren ondorioz, aurtengo urtarrilean Donostian aurrera eraman zen epaiketaren lekuko zuzena izan nintzelako.

Beraz, goian azaldutako bi arrazoi hauetan oinarrituz doa orain zuzenketa gazte hauen epaiketaz. Goian aipatu denuntzia horrek zera zioen: "injurias a los cuerpos de seguridad, solicitando se imponga la pena de multa de 14 meses con una cuota diaria de 2.000 pts con responsabilidad personal del articulo 53 del codi-

go penal". Hau da fiskalak eskatzen zuena lehengo urteko idatzi horretan.


Epaiketa, lehen esan bezala, aurreko astean burutu zen eta bertan egon ginenok entzun genituen bertan esandakoak; beraz, denek hitz egin ondoren, fiskalaren eskaera ondorengo izan zen: "pena de pago de 200 pesetas diarias en un plazo de 14 meses", ondoren defentsak azaldu zituen bere ondorioak, "gazte hauen absoluzioa, epaiketa honetan ez baita frogatutzat eman gazte hauek egozten zaien deliturik egin izan dutenik". Epaiketa guztien ondoren sententzia erabakitze-ko geratzen da, kasu honetan, 20 edo 30 egunetara jakingo genuela argitu zigun gure abokatuak.

Gertaera honela izanik, ez dakit nondik bildu duen Berrigarak gazte hauei ipinitako isunaren albistea. Honenbestez, eskutitz honetaz baliatuko naiz Berrigarakoei zera eskatzeko: albistek bildu eta kaleratzerakoan

zuhurtasunez jardun deza-zuela, Bergarako herritarren artean dauden sentsibilitate ezberdinei leku emanaz, nere uste apalean jokaera honetatik ere bailetorke hain beharrean gauden elkarbizitzaren oreka eta harmonia.

*Epaitutako gazte  
baten gurasoa  
E.N.A. 15.873.143*

## tira biraka: gorka ortega & jon alvarez



■ atrebentzia ezpada

■ bai, esan!

## Zapatuan San Balentin, manteminduen eguna ospatzen da. Zelebratzeko ohiturarik badaukazu?



**Yolanda Bakero**

Oparitxoren bat egiten diogu elkarki, bai. Gizonari jantziaren bat edo koloniaren bat oparitzeko ohitura daukat. Ezkondu ginanetik ospatzen dugu batez ere.



**Isaak Peña**

Ez, lehen, ezkongabe nengoenean ospatzen nuen, oparitxo bat eginez, baina nire kasuan beintzat galduz joan da ohitura hori... Baina ondo iruditzen zait.




**Nati Gutierrez**

Ez, sekula ere ez. Komerzioen asmakizun bat iruditzen zait, salmentak igotzeko. Ondo ikusten dut jendeak opariak egitea, baina ez San Balentin delako.

**Gertaera edo ekintzaren bat salatu edo txalotu nahi baduzu, 76 03 97ra deitu eta sail honetan jasoko dugu zuk esana. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.**

**Jose Agirrek** mezu bat laga digu aste honetan Berrigarako kontestadorean, Udaltzaingoari kritikatzeko egiteko. Josek aipatzen duenez, Kruz Gallastegi kalean lerro bikoitzean aparkatzen duten kotxe gehiegi izaten da.

Horrela aparkatzen duten gidarien bila ibili behar izaten du askotan bere kotxea atera ahal izateko eta Udaltzaingorak beharrezko neurriak hartu ditzala eskatzen du Josek. Futboleko arbitroekin gertatzen den moduan, udaltzainek falta arinekin zorrotzegi jokatzen dutela eta Kruz Gallastegin gertatzen den moduko faltekin ezikusiarena egiten dutela salatzen du Josek.



**Jabier Elkoroirebe**

Bai, andreari oparitxoren bat egin beharko diogu, bestela haserretu egiten dira eta... Zedozer jausiko da. Orain, umeeekin, zailagoa izaten da afarira irtetzea.



**Maria Pilar Gonzalez**

Ez. San Balentin egunero ospatu behar da. Lehen ospatzen genuen, baina gaur egun nahiko komertziala bihurtu dela iruditzen zait. Gazteentzat ondo dago.



**Diego Osuna**

Ez, otsailaren 5ean neska-  
ren eta bion urteurrena ospatzen dugu eta nahikoa da. Ez daukat San Balentin ospatzeko ohiturarik, baina ez dut gaizki ikusten.

■ ikuspuntua: **joxe lazcano**

### *Ai, Balentin, Balentin!...*

Ai, Balentin, Balentin! Balentin neria!  
Gaur zure eguna dala ta zoeze idaztia pentsau dot, nere bihotza astoratuta dabil eta ez dakit ze ein, benetan, errebentau biharran nago.

Badakit problema haundixauak be egongo diela, baina bakoitzak beria ikusten dau, ta nik neria.

Kontua da maiteminduta nagola, zihero maiteminduta, gero! Eta, aldi berian, gorrotauta be banago, zihero gorrotauta! Eta, badakizu, halakuetan pertsonia aldrebestuta



Baina okerreana da ez dakitxetela zeinekin naon maiteminduta eta zeinekin gorrotauta. Hau nahigabia ta zorritxarra neria!

Eta argitzen ez dostazun bitxartian ez naiz pakian egongo, ezingo jat nere maitiai berak merezi daben moduko atentziñuak emun eta nere kontrarixuai berak benetan

ibiltzen da, normalian eitzen ez daben gauzak eitzen eta mundua antiaju espezialekin ikusten.

Ai, Balentin, Balentin! Balentin neria!

merezi daben moduko desprezixuak ein.

Ai, Balentin, Balentin! Balentin neria!

Esaidazu zein maite eta gorroto doten gehixau, gorrixa ala urdiña? Urdiña ala gorrixa?

Zein da nere bihotzeko azukar koxkorra? Txuri urdiña ala txuri gorrixa? Zein da nere barruko amorrui haundixena? Txuri gorrixa ala txuri urdiña?


Zein animatu bihot igandero-igandero aupaka eta zein desanimatu bihot hijoputaka? Gorrixa? Urdiña?

Ederra panoramia!

Balentin, mesedez, faborez eta karidadez, lagundu! B

■ asteko menua

## Bakailaoa piperradan



ANGEL ETA BEGO ARIZABALETA  
*Tartufo jatetxeoak*

### PRESTAKETA

- Bakailaoa gezatu.
- Kipula eta piper berdea tiratan txikitu.
- Bustinezko ontzi batean kipula eta olioia jarri, su motelean.
- Kipula gorritzen hasitakoan bakailaoa bota, irinetan pasatuta, eta pare bat minutuz egiten laga, gehiegi ez baina.
- Zartagin batean piper berdea eta berakatzarri oliotan, gorritzen hasitakoan, ondo xukatutako bakailaoa eta kipula bota. Minutu batez su motelean eduki eta atera aurretik ardo zuria bota.

### OSAGAIAK (4 laguntzat)

- 1 kg. bakailao-solomo
- 400 gr. kipula
- 250 gr. piper berde
- 3 berakatzarri
- 1 dl. ardo zuri
- Gatza, olioia, irina eta perrexila

### PLATERERA ATERATZERAKOAN

Bi bakailao-solomo, gainean piperra daukatela (piperrak eta kipula), perrexil xehetu pixka batekin.

■ adituen esanetan

## Eutanasia

AMAIA ZABALETA, *abokatua*

Gaur egun Espainiako Estatuan eutanasia zigortuta dago. Kode penalak, eutanasiaren gaian, lau kasu bereizten ditu. Alde batetik, lehendabiziko kasuan, beste norbaiti suizidioaren erabakia hartzen laguntzeagatik, lau urtetik zortzi urtera bitarteko kartzela zigorra aurreikusten da; bigarren kasuan, bere buruaz beste egiteko norbait laguntzekotan, bi urtetik bost urtera bitarteko kartzela zigorra jaso daiteke; hirugarrenean, nolabait zuk pertsona hori (berak eskatuta) hiltzen baduzu, sei urtetik hamar urtera bitarteko zigorra dago eta, azkenik, laugarren kasua aurrekoaren berdina litzateke baina hiltzea nahi duenak (gaisotasun larri bat duelako

adibidez), ezin duenean bere heriotza exekutatu.

Garai batean eutanasia aktiboa eta pasiboa bereizten ziren. Aktiboa norbait hiltzera laguntzea litzateke, injekzio bat jarri adibidez. Pasiboa, ezer ez egitea da, oxigenoa behar duenari oxigenoa ez emanez, esate betarako. Baina, azken batean, bi kasu horiek aktiboak dira, zerbait egiten duzulako.

Beste herrialdeei dagokienez, Australiako eutanasia legeztatuta dago 96ko uztailetik eta Estatu Batuetako hainbat estatutan "suicidio asistido" deritzana jasota dago. Holandan, berriz, nahiz eta eutanasia zigortuta egon, normalean ez dituzte medikuak zigortzen. B

■ bergarako gordailutik


## NOIZ ETA NOLATAN HASI GINEN PATATA JATEN

Imanol Sorondo

**G**ure artean patata maneatu eta jatea berri samarra da. Seminario Haundiaren Elkartek

1772. urtean Irlandatik kilo batzuk ekarri eta Gipuzkoako eta Bizkaiko zenbait baserritan ereitea agindu zuen. Bi urte beranduago Malagatik ere ekarri zituen asmo berarekin.

Berrigarako azken atletik ezagutzen dugun Santamainako abade maisua, Rafael Garitano Aldaeta, izan zen landatze eta maneatzeko saiakerak Seminario Haundian aurkeztu zituen lehena. 1776. urtean, bere baratzekeko lur sail txiki batean dozena bat patata erein zituen eta 31 kilo jaso; gero, biguntzeko egosi ondoren, gari edo arto irinarekin nahasi egin zituen eta gatz piska bat tartean botata, asko gustatu zitzaizkien jan zuten gutzietan.



Gure abade maisuak urtetik urtera ikerketa gehiago egin zituen eta Parmentier jaun frantsesari irakurritan hasi zen. Gure inguruan, Legazpin, eta kanpoan, Madrilen ere saikerak egin ziren. Denbora gutxian asko ugaritu eta zabaldu zen.

Dena begiratu zuten: patata eta lur klaseak, noiz erein, nola hartu eta gorde, landare batetik besterainoko tartea, ongarririk... jaten zizuten egosita, erreta, gisatuta, prejituta, entsaladan... Hegaztientzat, txerrientzat eta abar ere maneatzeko zizuten. B



## Mugarik gabeko ikastetxeak

Ikasleek enpresetan egiten dituzten praktiken kalitatea hobetu nahirik, **Miguel Altuna Institutua** "Eskola, mugarik gabeko enpresa praktika" izeneko proiektuan parte hartzen ari da, Frantzia, Norvegia eta Italiako hainbat ikastetxerekin batera. Proiektuan, besteak beste, praktiketako ekintza oinarritzkoenak zeintzuk diren, jarraipena nola egin edota jasotako ezagutzen balorazioa aztertuko dira. Helburuak ikasleek benetako egoeretan lanean ikastea, enpresa ondo ezagutzea eta giza harremanen garrantziaz jabetzea lirateke. Aurreko astean **Lilleko institutuko ordezkariak** Miguel Altuna institutukoekin izan ziren Bergaran lanean. Argazkian Pertxa elkartearen egindako afariaren aurretik ikus ditzakezue.

## Realeko jokalariekin

**Aranzabal Lagunartekoek** ez zuten hutsik egin zeresan ugari eman duen euskal derbyan. Aranzabal Lagunarteko 20 bat lagun izan ziren zapatuan Donostian; betiko bezala giro bikaina partidu atarian eta joko eskasa berdegunean. Reala eten-gabe animatu ondoren, partidu amaieran aldageletako irteerara hurbildu ziren peñako hainbat kide, jokalarien sinadurak jaso eta eurekin batera argazkiak ateratzeko. Argazkian Eider, Nagore, Aitor eta Manu **Gica Craioveanurekin** batera ikus ditzakezue. Jarraitzale leialak hauek...



## Giro ona eta jende ugari Murinondon

Eguraldiak lagunduta, sekula baino jende gehiago bildu zen aurreko astebukaeran **Murinondoko San Blas jaietan**. Zapatuan, mus txapelketan, **Emilio Gutierrez eta Eriko Martinezek** osatutako bikotea nagusitu zen, finalean **Mikel Kareaga eta Kepa Irizarri** irabazi ondoren. Domeka eguerdian jende asko izan zen mezan eta ondorengo ekitaldietan. **Iñaki eta Iñaxio Perurena** aita-seeen saio-



aren ondoren, harrijasotzaile gazteen I. San Blas saria jokatu zen. **Igoitz Gabilondo, Erlantz Olabarria eta Barrie John Olabarria** 45 Kgko harri bolarekin aritu ziren; Igoitzek eta Barrie Johnek 11na altxaldi egin zituzten eta Erlantzek zazpi. Perurenatarren erreleboa gertu dago... Bestalde, Moises Aspiazu-Aranzadi Ikastolako dantza taldeko haurrek ere maila bikaina erakutsi zuten.

# Maitasuna

*Adur Ezenarro gazte ordiziarra izan da Jardun Elkarteak antolatutako Amodiozko Gutunen VI. Berrigara Lehiaketako irabazlea. Euskal Herri osotik 134 gutun jaso dira aurtengo edizioan. Lehen sariaz gain, irakurle gazteek emandako saria ere eskuratuko du Ezenarrok. Bigarren saria Hasparneko Katti Pocheluk jasoko du eta berriko onena Itziar Larrañaga izan da. Bihar zapatua, San Balentin eguna, sari banaketa egingo da 12etatik aurrera Kartzela Zabarrean.*

## Irabazleak

Adur Ezenarro 20 urteko ordiziarra izan da aurtengo irabazlea. Epaimahaiak ez zuen zalantzarik izan lehen saria berari emateko orduan. Adur Ezenarro arkitekturen ikasten ari da Donostian eta aurretik ere parte hartu izan du amodiozko gutunen lehiaketan.

“joan zen urtetik gordeta neuzkan lerro batzuk ordenadorean eta ideia horri eutsi nion. Monja batek apaiz bati idatzitako karta da eta erotismoa eta morboa nabarmenak dira. Apaizak monja lotsagabeki erabiltzen du, baina monja ez da erabilia sentitzen,

Lehen saria eta irakurlearen saria  
**ADUR EZENARRO. ORDIZIA. 20 URTE.**

## Serora

Lazkaon, 1847ko maiatzaren 17an

On Joxe Inazio jauna:

**B**arka beza berorrek atrebentzia azkenean ausartu naizelako ene esku dardartiaz eskutitz hau izkribatzeraz, erraiak nahaspilatuturik baitauzkat eta arima are eta gehiago, eta otoitzak berak ere ez nau sosegatzen laguntzen egunotan. Begirik ezin bildu nabil azken gauotan eta azkenekoz ikusi nuenetik horrenbeste denbora pasa da...

Ez dakit zer gertatzen den, azoraturik somatzen ditut guztiak inguruan, giltzapeturik naukate, berorregana joatea ere debekatu didatelarik. Beldur naiz! Komentuko lotsa naizela aurpegi-ratzen didate behin eta berriro lekaima gazteenek iseka eta algara artean atearren bestaldetik; helduenek, berriz, pekatu egin dudala eta pekatu egin dudala, mezpretxatuz, eta norekin pekatu egin dudana aitortzen ez badut, inpernuko garretan kiskalduko naizela betiko. Maria Magdalena bera ere barkatu zuela gure Jaungoiko Jaunak bere hutssegiteez damuturik erreguka azaldu zitzaiotzan; paretsu joka dezadala nik ere oraindik ez omen bainaiz guztiz

galdu. Artzainak ardi galdua itzultzean irrikaz hartzen duen lez gure Jaungoiko Jaunak ere ni gustora hartuko nindukeela berriz ere bere artaldean. Nik, haatik, inorekin pekaturik egin ez dudala ihardesten diet petralki itauntzen nauten bakoitzeko eta pekatu egitekotan ere berorren aurrean aitortu beharko nintzatekeela soil-soilik eta ez beste inoren aurrean, utz nazatela bada berorregana joaten baina alferrik, ezetz eta ezetz.

Gaur, halere, Ines ahizparekin klaustrora irteten utzi didate goiz partean; Ines hain baita ona! Bera da konprenitzen nauen bakarra; nire alboan dagoena berorren laguntza izan ez dudana momentu gogor hauetan. Aipatze hutsak lotsarazten banau ere, gaurko honetan inoiz baino gehiago kosta zait harmailetan behera joatea, ezen sabela puzten eta puzten ari baitzait eta bularrak haunditzen eta haunditzen, egunetik egunera baldarrago nabil eta inori aipatu ez badiot ere, ditiburuak ere gogortzen eta gogortzen ari zaikit; berorrek aitortzen nintzenean bezalatsu! Aitortzeko premia dudala esan nahi duela horrek? Hori da neronek moja txatxu hauei esaten diedana, aitortu beharra daukadala, baina horrela ere ez

didate berorregana joaten uzten.

Eskerrak Ines ahizpak heldu nauen zorabiatuturik ia-ia zorura jausi naizenean, bestela ez dakit zer gerta ote zitekeen. Ez da lehenengo aldia gertatzen zaidana alabaina, arraro samar nabil azken bolada honetan; jatorduetan ez dut goserik izaten eta bazkalostean apur batez ohean etzaten naizen bakoitzeko goragalea datorrit, orduan nekez irentsitako jaki gutxi horiek bat batean botatzen ditudalarik.


Ikara ematen dit konturatu gabe pekatu egin dudala pentsatzeak eta gure Jainko Jaunak zigorra bidali didala bide onetik aldentzeagatik; berorrek baitaki ez dudala inolako pekaturik egin, neure borondatez ez behinik behin. Horregatik egon nahi dut lehenbailehen berorrek, aitortzeagatik, hainbeste lasaitzen bainau! Jakingo balu zenbateraino estrainatzen dudana! Gainera, apika berori saia daiteke zer edo zer egiten ea nere sabelak puzteari uzten dion, ur bedeinkatuarekin edo, egunero-egunero errezatutako Ave Maria eta Aita Gurek ez baitute oraindino ezer ere lortu eta bat batean lehertuko ote naizen beldur naiz.

Gogoratzen naiz Aitortza sakramentu santua dela esan zidala berorrek le-

*“Oroitzen naiz oraindik berorrek nola garbitu ninduen goitik behera, astiro-astiro, larruazala musukatuz; amak txikitan egin obi zidan antzera...”*



# idazten



ezjakina eta guztiz maliziarik gabekoa da. Karta 1847an fetxatu dut gaurko egunean horrelako situazio bat ematea nahiko zaila litzatekeelako". Adurrek 75.000 pezeta jasoko ditu.

Bigarren saria Katti Pocheluk jasoko du. Katti Hasparnekoa da

eta 16 urte ditu. 40.000 pezeta eskuratuko ditu. Azkenik, herriko onena Itziar Larrañaga 23 urteko gaztea izan da (argazkian). Euskal Filologiako ikaslea, lehen aldiz aurkeztu da lehiaketara aurtentzen. Ideia berehala etorri zitzaion eta astebete inguru eman zuen

karta idazten; "zerbait originala egin nahi nuen eta horregatik irakurleak ez daki karta amaitu arte nori idatzitakoa den". Kartan amodio kontuetan bihotzak agintzen duela dio: "nik uste dut baietz, erreala eta benetakoa baldin bada, behintzat, bai".



hengoz aitortzera joan nintzaionean eta horrexegatik aitortzaren nondik norakoen berri inori eman ezin ziezaiokeela, ondorioz, neuk ere berdin jokatu behar nuela, hori egitea pekatu baita.

Bere aurrean arima biluzi eta garbitu behar nuela esan zidan hurrena eta arima biluzteko lehendabizi gorputza bera ere biluztea derrigor dela; ezin uste baitezakegu arima garbi dezakegunik gorputza aurretik garbitu barik. Komentuan zortzi urterekin sartu nintzenetik beste inoren aurrean horrelakorik sekula egin ez nuen arren, aitortzen nintzen lehenengo aldia izaki soinean neraman jakzia kendu nuen galderarik egin gabe.

Oroitzen naiz oraindik ondoren berorrek nola garbitu ninduen goitik behera, astiro-astiro, larruazala muxukatuz, amak txikitan egin ohi zidan antzera, banan-banan gorputzeko atal guztiak xahutuz. Baina bularraldea eta hankartea hain sentiberak izanik ez zuen bortizki urraduraren bat egitera arriskatu nahi, tratamendu berezia behar omen zuten. Bere mihiaz emeki-emeki eta laztankiro ferekatu zizkidan ditiburuak orduan, gogor-gogor utzi zizkidan arte, eta hankartea kontu handiz losindu zidan gero, paradisuko arrosa galdua bailitzan, bertatik jasoko bainuen Izpiritu Santuaren barkamena. Pozez hasperen egin nuen, gustora, ditiburuak bere hatzen artean igurtzen zituen bitartean eta bi azukre koxkortxo balira bezala kosk egin zienean. Jada

prest omen nengoen aitortza jasotzeko. Hain nengoen pozik sekula ez nuen pentsatu aitortzea horren gustagarria izan zitekeenik!

Ezertan jarraitu baino lehen, ordea, aitortza berorrek soil-soilik egin behar nuela errepikatu zidan, ahantz ez nezan sakramentu santua erretorearekin baino ezin dela bete. Bestalde, nik nere aldetik ere jarri behar nuela eta, berorren gorputza aitortzarako prestatzeko esan zidan, garbitu nezala aurretik berorrek egindako moduan, miazkatu niezazkiola ditiburuak, ezpainak eta sabelaldea, eta hankarteko tramankulua (hala hots egiten baitzion berorrek) gozoki ferekatu behar nuela, bai hatzez eta bai mihiaz, ahoan sartzeko beldurrik gabe, gora eta behera mugituz, harik eta zotz gogor baten tankera hartu arte, bestela ez ziola Izpiritu Santuak ni barkatzeko adina indar eman-go. Esandakoa bete nuen eta nola hazten eta hazten ari zen nabari nezakeen.

Hortaz, etzateko agindu zidan, aitortzeko tramankulua nire barnean sartzeari beharrezkoa zelako eta aitortzen nintzen lehendabiziko aldia zenez, apika min piska bat egingo zidala, baina ni ez arduratzeko, hortzak estutu eta egindako pekatuen barkamena eska nezala, ikusiko nuela nola laister batean barkamenaren plazerra sentituko nuen osoki gizakia ez baita pekatuen zama gainetik kentzen duenean baino hobeto inoiz sentitzen. Hala izan zen egia esan behar badut, eta zorionez be-

terik nengoen hartan muki moduko zerbait beroa somatu nuen nere barnean; barkatuta nengoen!

Gerora ere aitortu nintzen gehiagotan, astero ia-ia eta barkamena jasotzeko beste moduak ere bazeudela irakatsi zidan, tramankulua ahoan sartu zidan hartan bezalatsu. Nik, oster, lehenengoz aitortu nintzeneko modua nuen gustokoen. Berorregana aitortzera noiz joango zain pasatzen nuen astea, eginbeharrak ere deskuidatuz, baina inoiz ez nuen izan orain daukadan bezainbesteko beharra aitortzeko.

Ni ikusten saia dadila erregutzen diot, ez baitakit zer gertatuko ote zaidan daramadan martxa honekin jarraituz gero. Pekaturen bat egin badut jakin egin nahi dut eta lehenbailehen aitortu, ez bainuke mila zatitan leher eginda amaitu nahi. Gainera, ez dut imajinatu ere egin nahi berorri dela ikusi nahi ez nauena, hori gehiegizkoa izango litzateke niretzat eta are eta gehiago orain nagoen egoeran egonda. Erruak moja alu hauena izan beharra dauka; horregatik, arren, eskatzen diot lagun diezadala!


Ines ahizparekin ziur nago eskutitz hau berorregana arazorik gabe iritsiko dela, bere esku dago, esan diodanez, neronek galerazita baitaukat joatea. Noiz aitortuko nauen zain geratzen naiz irrikaz.

Maria.



Bigarren saria

**KATTI POCHELU.** HAZPARNE. 16 URTE.



## Maitasuna eta gorrotoa: ezezagun bikoterik ospetsuena

Koldo.

**A**rranguratzen nauten go-etak idazten dizkizut. Zurekin mintzatzea jasangaitza zitzaidan. Ez nindukezun hitz egiten utzi-ko eta erranen zenidakeenak gehiegi sofriaraziko nindukeen. Idaztekoak min egiten badit ere, bihotzeko korapiloa pixka bat laxatuko dit.

Zure gorputzaren irudikatzeak hotz-ikarak emaiten dizkit. Zure itzala ikusteko gogoak ene begibista iluntzen du, baina zure itxura ez da agertzen. Zure ahoaren oroimenaz ene begiak etengabe dardarka ari dira. Zure larrua-  
ren berotasuna sentitzen dut gorputz osoan, zure izerdia lepotik behera... baina errealitateak jotzen nau eta ohar-tzen naiz malkoz blai nagoela eta sukarrak zorutzen nauela... entzuten nuena ez zen zure hotsa, baizik eta bakarda-dearen boza.

Ene bihotza kasik mututzen da, zure taupada gabeko bizia pentsaezina zaiolako. Zure beharra dut. Itzul zaitetz otoi! Zure ahoaren perekaren beharra dut, zure mihiaren zaporea atal guztietan, zure hatsa bizkarrean. Gauaz begiak ez ditut gehiago hesten ahal, baina ez bazaitut gehiago entzuten eta hunkitzen, ez dira gehiago idekiko.

Ene bizia emanen nuke barka diezadazun. Ene mihia moztuko nuke gau hartako neskaren kiratsa galtzeko. Nahigabekeria hutsa izan zen gau hura, eta neska hori ez zen ezer, ez nuen plazer izpirik ukan. Ene gorputza zikina atzemaiten dut, bere esku lizunek laz-tandu ninduten txoko ezkutuetan, zuretzat bakarrik atxiki nahi ditudanetan.

Zure begien distira beharrezkoa zait

*“Zure begien disdira beharrezkoa zait gorputzaren osotasunean. Zure ileen gozotasuna usaindu eta hunkitu behar dut”*



## Kalitate oneko lanak

Maider Zabalegi musikaria, Miel Anjel Elustondo kazetaria, Juan Martin Elexpuru idazlea (argazkian agertzen direnak) eta Jon Maia bertsolaria izan dira aurtengo lehiaketako epaimahaiak. Epaimahai-kideek karta gehienak ondo idatzitakoak zirela nabarmendu zuten zapatuan. Miel Anjel Elustondo iaz ere epaimahaiak izan ginen. Berak azpimarratu zuenez, “maila bereko karta asko zeuden eta beti ere batzuk originalagoak izaten dira; horiek dira, hain zuzen, azkenean saritzen direnak. Baina jende-ak badaki euskaraz ondo idazten. Askotan egunero

irakurtzen ditugun kazeta-rien artikulua baino joser-kerak hobeak zuten askok. Iazko edizioarekin konpara-tuz, joan zen urteko saridunak helduagoak ziren eta idazle ziren, bai Xabier Larrañaga eta bai Joseba Santxo idazleak ere badira behintzat”. Elementu berriei dagokienez, posta elektronikoko bidez amodiozko harremanak egin dituztenak edota CD Rom-en aipamenak izan dira aurten. Orijinaltasuna ere ez da falta izan; mutil-neskaren arteko eskutitz klasikoek gain, sexu bereko-  
en artekoak, monja batek apaiz bati bidalitakoa edota txakur bati idatzitakoa

aurkeztu dira.

Irakurle gazteek emandako saria Enara Agirre (Aranzadi Ikastola-ko ikaslea), Maialen Elizburu (Ipintza Institutua), Garikoitz Garitano (Miguel Altuna Institutua) eta Olaia Jimenez (Mariaren Lagundia) ikasleek erabaki dute. Hauek ere Adur Ezenaroren gutuna saritu dute. Irakurle gazteen epaimahaiak kartaren orijinaltasuna nabarmendu du, egileak irakurlea historian barneratzea lortzen duela azpimarratuz. Herriko ikastetxeetako irakurleen ustez, ondo idatzita egoteaz gain, karta oso ondo girtuta dago.

gorputzaren osotasunean. Zure ileen gozotasuna usaindu eta hunkitu behar dut.

Baina beldur naiz. Beldur naiz zuek gabeko biziari pentsatzean. Beldur naiz ganbara hutsa ikustean, beldur ere ohea hotza aurkitzean. Baina beldur naiz gau hartan gertatutakoa aitzakia bat baizik ez izatea, gure maitasuna ezin izan baituzu sekulan aitortu, arrazoin bakarra sexu berekoak garela izanki. Baina gure artean dagoen sentimendu ezin definitua nola hauts dezakezu hankartearen daukazunarengatik?

Zure nortasuna nola uka dezakezu inguruko begiradarengatik?

Nik bezain argi dakizu neska hura ez zela deus izan enetzat eta beti maite zaitudala, beharbada oraino gehiago.

Erantzuniezadazu otoi. Ez badidazu erantzuten, benetan zutaz urrikaltzen naiz. Zure biziaren bilakaera besteek hautatu behar badute, ez zara ezer...

Enekin segitu nahi baduzu, lehen ukan ditugun harreman beroak ukan nahi badituzu berriz ere, berehala hots egidazu. Bestela, hitz emaiten dizut ez nauzula gehiago ikusiko... Baina jakin ezazu, halere, beti zutaz pentsatuko dudala, maite zaitudalako.

Agur, Iker.

## Urrin baina gertu

Lagun zahar maitxia:

**E**tsipenak, negargurak, poztasunak..., bezala, maitxasuna be ezin dala hitzetan gorpuztu, adierazi esan ohi da. Sentidu eitzen dan zerbait dala eta sentitzen dugunian jakitzen dugula zer dan, Hala be, nik boligrafoari eraitzeko bihar bat sentidu dot neure barrenian. Barrenian diñot, izan be bihotzak bidaltzen nau hitz hauek pazeratza. Bihotza darabitz agintari.

Urtiak die ezagutzen zaitxudala. Mundu honetara etorri nintzanetik neure inguruan izan zaitxut. Egixa da bai, hasieratik eñ ziñuztala lagun baina adiskidetasun xalo eta laño hau, horren maitxasun sutsu eta bizi bihurtu bihar zala esan izango baloste, orduan, ez neuke inolaz be sinistuko. Zorionez horrela izan zan. Poliki-poliki ezagutuaz joan nintzaizun eta konturatu barik zureganako maitxasuna erne eta hazi jaten, itsutuki hartuta, guztiz liluratu gelditzeraino. Geroztik hona, ez dot begirik zu ikusteko baizik, mingainik zutaz berba eitzeko baizik eta bihotzik zu maitxatzeko baizik. Are gehiago, orain zuregandik urrun aurkitzen naitenez, nire sentimenduak biziki sakonau eta indartsuauak bihurtu die, neurritz gainekuak. Izan be, hemen atzerrian, zure ausentziaz jota, bakarrik aurkitzen naiz. Nortasun faltan. Inddar

*“Geroztik hona ez dut begirik zu ikusteko baizik, mingainik zutaz berba eitzeko baizik eta bihotzik zu maitxatzeko baizik”*

## Geroz eta gizonezko gehiago

Amodiozko Gutunen Lehiaketako VI. edizio honetara Euskal Herri osotik 134 gutun aurkeztu dira. Joan zen urtean baino karta gutxiago jaso dira, iaz 194 gutun izan baitziren lehian. Ohizkoa denez, Gipuzkoatik jaso dira karta gehien: 84 karta. Horietaatik 21 Deba Garaiko jendeak bidali ditu eta Bergarako 13 partaide izan dira. Herriko partaidetzak behera egin du aurten, aurreko edizioan herritarrek idatzi-

tako 27 karta jaso baitziren. Beste herrialdeei dagokienez, Bizkaitik 32 karta jaso dira, Arabatik eta Iparraldetik 8na karta eta, azkenik, Nafarroatik bi. Karta kopuruari begiratu eta, Iparraldea izan da hazkundera izan duen bakarra: 1etik 8ra. Horretan zerikusia izango zuen iaz Maialen Torre mugerretarrak eskuratutako bigarren sariak.

Bestalde, sexuaren arabera, gutxigatik bada

ere, gizonezkoak nagusi izan dira aurten. Lehiaketara aurkeztu diren kartetatik 69 gizonezkoek idatzitakoak izan dira eta gaintzeko 65 kartak, berri, emakumezkoenak.

Adinari dagokionez, kasu askotan egileek ez dute bere adinaren berri eman. Hala ere, aurreko edizioetan gertatu den moduan, adina azaldu dutenen artean 14 urtetik 18 urtera bitartekoak izan dira gehienak.

barik, ahalmenik barik, ezintasunian...

Samintasun honetan murgilduta, ez daukat zutaz gogoratu besteik. Neure goguan zabitz beti hara eta hona, hai-ziak lurretik altxatutako paper zikinen moduan. Zure jatortasuna datorkitx burura, zure goxotasuna. Serixua za bihar danián, barregarri nahi dozunian. Maminsu eta sakona batzutan, arina bes-tetan. Beti prestu eta noblia, beti txukun eta garbixa. Hain gustoko ditzuzun itsaso eta mendixak bezain eder eta haundi. Berezixa za. Bai! Bestiengandik desberdina, munduan paregabia...

Kalte eñ nahi dotsuenak badie, ordea. Inongo hitz ederren ate ez dien ahoak, zure ziena lohitzu nahixan dabitzenak. Arriskuan jartzen zaitxuzte-

nak... Hau dala eta, ez dozu bizitza xamurra izan. Bide malkortsuan ziur ibili bihar izan za, estu eta larri...

Adoria da zuk bihar dozuna guzti honen aurrian, kemena eta inddarra. Eta alferkerixa hoiek ez zaitxiela, arren, zu estutu. Ez zaitxiela ahogaiztuen eransixak ozpindu eta ikaratu. Ez die eta kontuzkuak.

Raro xamarra eitzen jat gutun honen bidea zeuregana zuzentzea, baina zeureganako atxikimendu haustezina erakutsi nahi dotsut, ezerk, ez jendaila horren esamesak, ez urruntasunak, ez nauelako zeuregandik banatuko. Eta jakin eizu, bai lagunartian, bai familixan, bai lanian, bai maitxasunian, neure buru-bihotza zeure alde emungo ditzudala...

Asko maitxe zaitxut eta, Euskara!!

Inoiz utziko ez zaituena.



## Sari banaketa zapatuan Kartzelan Zaharrean

Sari banaketa ekitaldia bihar, zapatua, San Balentin egunean izango da. Ekitaldia Kartzela Zaharrean egingo da, eguerdiko 12etatik aurrera. Aitziber Azkondo kazetaria eta Jon

Sanchez izango dira aurkeztuak eta musika eta amodizko kontuak izango dira protagonista nagusiak. Bertan, saritutakoek euren kartak irakurriko dituzte jendearrean eta, horrez gain,

Musika Eskolako soka boskoteak eta Patxi Saiz kantariak ere hartuko dute parte. Patxi Saiz kantari getariarrek "Iratzarra" bere azken diskoko kantak eskainiko ditu. Diskoaren grabaketan

Xabier Agirre eta Alaitz Zabaló antzularrek ere kolaboratu zuten. Patxi Saizek esaten duen moduan, "nire emanaldietan kantu goxoak lagunarteko giroan entzuteko aukera izaten da".

# Labegaraietako futbito txapelketa

## partiduak

### ZAPATUAN BARRUAN

09:00: Amilotx-Etengabe  
10:00: SLO-La Juve

La Juve  
Etengabe

### ZAPATUAN KANPOAN

09:30: Komando Piperrak-Uve Bikoitza  
10:30: Manitou-Ufala  
11:30: Autoberezi-Moskis  
12:30: MRW-Aldoka Maldoka

Ufala  
Uve Bikoitza  
Manitou  
Autoberezi

### DOMEKAN BARRUAN

09:00: La Peña DML-Txipiron  
10:00: Usoa-Ganbara Ari Ari  
11:00: Patatus-Erdibiterrak  
16:00: Agiñaspi-Ortzi  
17:00: Ezinleike-Shaktale  
18:00: Amozkibar-Artusamak  
19:00: FAC-Agirrebeña Jatetxea  
20:00: Eri-Jakina Patxaran Team

Ganbara  
Txipiron  
Usoa  
Ezinleike  
Agiñaspi  
Shaktale  
Artusamak  
FAC

### DOMEKAN KANPOAN

10:00: Bayer-Guadalest  
11:00: Iganekoak-Gazteak  
16:00: Azpeitxi Jatetxea-Bildurbarek  
17:00: Pagomendi-Mongatxurrak  
18:00: Etxagi-Jauja OH Zerezos  
19:00: Bar Ganbara-Matxakategi

Gazteak  
Guadalest  
Pagomendi  
Bildurbarek  
Mongatxurrak  
Etxagi

## argi!

### Bi partidu jokatzeko

Ufala taldeko Jon Aiastuiri bi partiduko zigorra ezarri dio Antolaketa batzordeak, Guadalest taldearen kontrako partiduan aurkari bat joteagatik, baloia jokoan ez zegoenean, gainera.

## jokoz kanpo



Fernando Diaz  
GANBARA ARI ARI

G. Zer moduz zabiltzate?  
E. Ondo, lehenengo fasean karnetak berandu emateagatik kendutako puntuengatik izango ez balitz, bigarren mailan izango ginatete.  
G. Zergatik sartu zara antolaketa batzordean?  
E. Izan ziren dimisioen ondoren, antolaketan jendea behar zen eta jende berria sartu arte laguntzen ibiliko gara.  
G. Zaila da txapelketa antolatzea?  
E. Ez, batez ere partiduen ordutegia jartzea da zailena. Jokalariak ondo portatzen badira, ez dago arazorik.  
G. Txapelketako talderik onena?  
E. A Ze Flaxa Etxagi edo Errotagain.  
G. Txapelketako jokalaririk onena?  
E. Aitor Anton.  
G. Zer helburu dituzue?  
E. Bi lehenengoen artean geratzea espero dut, igoera fasea jokatzeko.  
G. Reala UEFArako sailkatuko da?  
E. Athleticzalea izan arren, txapelaldun izateko aukerak badituela uste dut.  
G. Ligako jokalaririk onena?  
E. Bihotzarekin Julen esango nizuke, baina ongien Luis Enrique dabil.  
G. Mundiala zeinek irabaziko du?  
E. Espainiakoak fisikoki ondo badoaz, uste dut irabazteko aukerak dituztela.

## gora eta behera



### Manitou, A Ze Flaxa

Manitou taldeak galdu barik jarraitzen du eta bigarren mailako lider indartsua da. Azkenengo partiduan errez irabazi zion Guadalesti eta badirudi txapelketan ez dagoela eurei irabazteko gai den talderik. A Ze Flaxa, berriz, liderra da lehen mailan.



### Arloteak

Arloteak taldeak txapelketa lagatzea erabaki du. Poperen taldea txapelketako talde historikoetako bat da sorreratik baitabil. Aurten taldea osatzeko jokalaririk falta izan dute eta txapelketa laga egin behar izan dute.

## emaitzak

Arloteak/Oilagorra-Pagomendi	0-3
Mongatxurrak-Etxagi	2-1
Jauja OH Zerezos-Errotagain	7-1
Bar Canalejas-Agiñaspi	1-0
Ortzi-Azpeitxi Jatetxea	5-2
Bildurbarek opel/Lam-A Ze Flaxa Etxagi	2-4
Guadalest-Manitou	3-8
Artusamak-Bayer	10-4
Agirrebeña Jatetxea-Amozkibar	10-3
Shaktale-FAC	9-3
La Juve-Ezinleike	4-4
Ufala-SLO	3-4
Uve Bikoitza-Indargorri	3-4
Matxakategi-Komando Piperrak	8-0
Moskis-Bar Ganbara	0-1
Autoberezi-Aldoka Maldoka	8-3
Jakina Patxaran Team-MRW	2-1
Polideportivo Taberna-Erdibiterrak	6-1
Etengabe-Patatus	3-1
Ari Ari Ganbara-Amilotx	7-1
Gazteak-Usoa	1-9
Txipiron-Iganekoak	2-9

## sailkapenak

### Lehen maila

	P	J
1. A Ze Flaxa Etxagi	39	16
2. Mongatxurrak	36	16
3. Errotagain	31	16
4. Pagomendi	28	16
5. Bar Canalejas	26	16
6. Etxagi	21	16
7. Bildurbarek Opel/Lam	21	16
8. Azpeitxi Jatetxea	20	16
9. Jauja OH Zerezos	14	16
10. Agiñaspi	13	16
11. Ortzi	9	16
12. Arloteak/Oilagorra	8	16

### Bigarren maila

	P	J
1. Manitou	15	5
2. FAC	10	5
3. Shaktale	10	5
4. Bayer	9	5
5. Artusamak	7	5
6. SLO	6	5
7. Ezinleike	6	5
8. Agirrebeña Jatetxea	6	5
9. Ufala	5	5
10. Amozkibar	4	5
11. La Juve	4	5
12. Guadalest	2	5

### Hirugarren maila

	P	J
1. Moskis	12	5
2. Bar Ganbara	12	5
3. Autoberezi	12	4
4. Matxakategi	9	4
5. Jakina Patxaran Team	6	5
6. Indargorri	6	5
7. Eri Sirimiri	6	4
8. Komando Piperrak	3	5
9. Uve Bikoitza	3	4
10. MRW	3	4
11. Aldoka Maldoka	0	5

### Laugarren maila

	P	J
1. Usoa	12	4
2. Txipiron	9	5
3. Ganbara Ari Ari	9	5
4. Polideportivo Taberna	9	5
5. Erdibiterrak	9	4
6. Iganekoak	7	4
7. Amilotx	6	5
8. Etengabe	6	4
9. La Peña DML	4	4
10. Gazteak	3	5
11. Patatus	-3	5

# ESKOLAKIROLA

## IKUSI ETA IKASI

### SASKIBALOA

#### Baloia zela jokatu:

- Jokalariak, eskuarekin jokatu behar du baloia eta ezin du hankaz edo ukabirez jo.

- Baloia duen jokalaria, baloiari bote eraginez ibili daiteke.

- Baloiare bote eragin gabe, gehinez bi urrats eman daitezke. Gehiago emanaz gero, baloiaren jabetza aurkako taldeak hartuko du.

- Jokalariak, baloia botatu ondoren bi eskuez hartzen badu, ezin izango du berriro baloia botatu; derrigorrez, baloia jaurti edo pasatu egin beharko du, bestela, dobleak deituriko falta seinalatuko du.

KIROLA EUSKARAZ FITXAK



## TXINDARTAK

### Eneko Muguruzak marka bikaina lortu zuen 60 metroko proban

Eneko Muguruzak 8 segundu 9 ehuneko marka lortu zuen 60 metroko lasterketan. Muguruzaren marka azpimarragarria da 5. mailan baitabil eta 6. mailako ikasleek baino marka hobea lortu zuen.

Zapatu goizean atletismo probekin jarraituko dute alebinek Agorrosingo pistan. Gainera azkenengo jardunaldia izango da eta onenak otsailaren 21ean Arrasaten jokatu diren finalerako sailkatuko dira.



### Mariaren Lagundiko infantilak

Mariaren Lagundia infantil mailako futbol taldea Ruben Gomez, Jabi Martinez, Alex Martin, Jose Manuel Teixeira, Ruben Liberal, Raul Marquez, Jose Javier Carrero, Andoni Terrazas, Maikel Cid, Xabier Moya, Asier Gorriño, Fran Alcaraz, Ander Sesma eta Andoni Cestafek osatzen dute. Futbol txapelketan gustora dabilzala adierazi digute eta orain arte jokatu duten partidurik gogorrena Almenen aurkakoa izan dela diote. Lehenengo postuan ez joan arren talderik onena direla uste dute. Beste kirol bat aukeratzekotan saskibaloia aukeratuko luketela esan digute; baina kirol bat aukeratzekotan, futbola dela gehien gustatzen zaien kirola ziurtatu dute.



### Antzuolako infantilak

Antzuola infantil mailako futbol taldea Iker Cabrera, Odei Aranguren, Odei Lete, Ion Gurutz Godoi, Kepa Igarza, Aritz Saidi, Andoitz Peña, Ibon Urzelai, Oihan Gezalaga, Ion Ander Castro, Aritz Elorza, Egoitz Mendia, Iker Iparragirre, Ekain Navarro, Ortzi Urriategi, Endika Iturbe eta Iñaki Agirrek osatzen dute. Jose Angel Fernandez da taldearen entrenatzailea eta Elgetaren aurka izan ezik, berdindu egin zutela, gainontzeko partidurak irabazi egin dituzte. Txapelketa irabazteko asmoa dute eta futbola "kirol onena" delako aukeratu dute. Jokalari gehienak Realzaleak izan arren, entrenatzailea Athleticzalea denez, bilbotarren joku sistema erabiltzen ei dute.

## KARTELDEGIA

### FUTBOLA

#### Infantilak / Neskak

Zapatua. Ipintzan futbolzelaia.  
09:30: Aranzadi-Ipintza DBH.

#### Infantilak / Mutilak

Zapatua. Ipintzan futbolzelaia.  
10:30: Aranzadi-La Merced.  
11:45: M. Lagundia-Elgeta.

### SASKIBALOA

#### Infantil / Mutilak

Zapatua. M. Lagundia.  
11:00: Aranzadi-San Biator A.

### ESKUBALOA

#### Infantil / Neskak

Zapatua. Labegarieta kiroldegia.  
11:00: Aranzadi-Eibar.

### Benjaminak

Zapatua. Seminarioko patioan.  
10:00: Antzuola B-M. Lagundia B.  
10:45: San Martin-Aranzadi 2.  
10:45: Aranzadi 3-Antzuola B.  
11:30: Elgeta-Aranzadi 3.  
11:30: Antzuola A-Aranzadi 6.  
12:15: Aranzadi 1-Aranzadi 4.

### ARETO FUTBOLA

Zapatua. M. Altuna institutua.  
12:00: Aranzadi 203-Aranzadi 202.  
12:00: M. Lagundia-Aranzadi 201.

### ATLETISMOA

#### Alebinak / Neskak

Zapatua. Agorrosineko pistan.  
09:30: San Martin, Aranzadi 13, Aranzadi 14, Antzuola.

#### Alebinak / Mutilak

Zapatua. Agorrosineko pistan.  
10:30: M. Lagundia A, Antzuola, Aranzadi 7, Aranzadi 8, Aranzadi 12.  
12:00: Aranzadi 9, Aranzadi 11, San Martin, M. Lagundia B, Aranzadi 10.

## Futbola



Emakumezkoen taldeak Zarautzi 1-0 irabazi zion Naiara Beistegik sartutako gol bati esker. Emaizta horrekin mailaz igotzeko hurrengo faserako sailkatzea lortu dute. Agirrebarrenaren neskek beste 7 talderen kontra jokatu dute. 2. mailako kadeteek ere igoera fasea jokatzeke sailkatu dira Aretxabaletari 1-5 irabazi ondoren. Aranbururen mutilek arbitraia txarra jasan behar izan zuten arren garaipen bikaina lortu zuten.

Emaizta onekin jarraituz, talde nagusiak 1-2 irabazi zion Aretxabaletari eta tinko jarraitzen du lidergoan. Lehen mailako kadeteek partidu bikaina egin zuten 4-0 irabazi baitzioten 2. postuan dagoen Beasaini. Infantilek bana berdindu zuten.

## Eskubaloia



Lehen Maila teritorialeko taldeak hirugarren partidu jarraian galdu zuten Zarautzen kontra. Lijoren mutilek 5 goleko aldearekin galdu zuten eta mailari eustea zail izango dute. Izan ere, bergararrak atzetik hasita hirugarren postuan daude eta azkenengo biak dira mailaz jaisten direnak. Gainera, goiko mailatik talde gipuzkoarrak jaisten badira, maila galtzeko aukerak gehitu egiten dira. Asteburu honetan Eibarren jokatu dute Arrateren kontra eta aurkako zaila izango dela esan digu Lijok.

Gainontzeko taldeei dagokienez, jubentilek Zarautzen galdu egin zuten eta 4. postuan jarraitzen dute. Kadete mutilek berdindu egin zuten eta kadete neskena suspenditu egin zen.

## Saskibaloia



BKE-Bolsos Bergara taldeak bukaera bikaina eman dio txapelketaren lehen faseari 14 puntuko aldearekin irabazi baitzion Goierri taldeari. Igoerako fasea hurrengo asteburuan hasiko dute eta Conderen mutilak mailaz igotzeko aukera handiak dituzte. Halere, bete dute hasierako helburua, igoera fasea jokatzea, alegia, eta hemendik aurrera lortzen dena oparizat har daiteke.

Bestalde, jubentil mailako neskek bigarren faseko lehen garaipena lortu zuten. Jubentil mutilek 11 puntuko aldearekin irabazi zieten Euskaldunakoei eta aurreko postuetan jarraitzen dute. Asteburu honetan partidu gogorra dute. Azkenik kadete mailako mutilek 4 punturengatik galdu zuten.

## KARTELDEGIA

## FUTBOLA

- Bergara-Antoniano**  
Lehen maila erregionala.  
Zapatua. 16:30. Agorrosin.
- Bergara-Dunboa**  
Emakumezkoak.  
Domeka. 10:30. Ipintza.
- Bergara-Behobia**  
Bigarren mailako kadeteak.  
Domeka. 10:30. Ipintza.
- Bergara-Arrasate**  
Infantilak  
Domeka. 12:00. Ipintza.

## ESKUBALOIA

- Bergara-Leitzarar**  
Kadete neskak  
Domeka. 12:15.  
Labegaraieta kiroldegia.

## SASKIBALOIA

- Bergara-Añorga**  
Zapatua. 17:30.  
Jubentil neskak.  
Mariaren Lagundia.

## PILOTA

- Gipuzkoako Kopa**  
Zapatua. 12:00.  
Udal Pilotalekua.  
Bergara-Deba,  
Kadete binaka.  
Bergara-Aretxabaleta,  
Senior binaka.

NESKEN IV. FUTBITO  
TXAPELKETA

- Nifis-Gu Geu**  
Arb.: Zutaz pentsatzen  
M. Altuna Institutua.  
Domeka. 11:00.
- Zutaz pentsatzen-Potzu ta Zapaburuak**  
Arb.: Gu Geu  
M. Altuna Institutua.  
Domeka. 12:00.
- Nahikari-The Road Island**  
Arb.: Potzu ta Zapaburuak  
M. Altuna Institutua.  
Domeka. 13:00.


## JOKIN GURIDI / Piraguista "Beldurra kentzea da zailena"

**Jokin Guridi Beti Busti piraguismo elkarteko kirolaria da eta BERRIGARAK eta Udal Kirol Zerbitzuak ematen duten bere klubeko urteko Kirolari onenaren saria jaso du. Martxoan estatuko piraguismo txapelketa hasiko da.**

- G.** Zenbat urte daramatzazu piraguismoan?
- E.** Aurtengoa hirugarren urtea da eta oso gustora nago. Lagunekin hasi nintzen eta hor jarraitzen dut.
- G.** Beste kirolik egiten duzu?
- E.** Noizean behin mendira joaten naiz.
- G.** Piraguan ibiltzen ikastea asko kostatzen da?
- E.** Ez da oso zaila, baina beldurra kendu behar da.

- G.** Non hasi zinen piraguan ibiltzen?
- E.** Deba ibaian ibili nintzen lehenengo aldiz. Lazpiur lantegi aurrean sartu ginen errekarra eta nahiko gaizki pasatu nuen.
- G.** Zer teknika da ikasteko zailena?
- E.** Eskimotajea. Piraguarekin buelta osoa ematea, norbera urpean sartu eta irten egin behar da eta asko kostatu zitzaizdan ikastea.
- G.** Beti erreketan ibiltzen zara?
- E.** Astebukaeretan erreketara joaten gara eta astebarruan kanpoko igerilekuetan ibiltzen gara entrenatzen. Gimnasioan ere ibiltzen gara pesak egiten.


- G.** Martxoan Estatuko Kopan hasiko zarete, ezta?
- E.** Bai, guztira 5 proba izango dira. Gorka Fernandez eta Eneko Iturrospe taldekideekin batera joango naiz.
- G.** Zer helburu dituzu?
- E.** Azkena ez geratzea, txapelketa horretan maila handia da eta.



# Bailara mailan kirola bultzatzen

## Uda aurretik kirol medikuntza zerbitzua jarriko da martxan

**Mankomunitateko** kirol zerbitzuek aurtengo asmoen berri eman zuten joan zen eguakitzean egindako prentsaurrekoan. Lehenik eta behin, Oñatin eta Bergaran uda aurretik kirol medikuntza zerbitzua eskaintzeko asmoa dutela adierazi zuten. Bergaran zerbitzua udal biltegian emango da eta medikuntza prebentiboa landuko dute batez ere. Horretaz gain, oinarritzko azterketa medikuak eta esfortzu probak egingo dituzte. Zerbitzua emateko Udalak milioi bateko inbertsioa egin beharko du. Medikuntza zerbitzua kirolari afizionatu zein federatuentzat izango da zabalik.



Prensaurrekoa Mankomunitateko kirol zerbitzuko teknikariek eman zuten.

Era berean, 1998ko Deba Garaiko kirol gida aurkeztu zuten. Gidan kirol instalakuntza eta zerbitzuei buruzko informazioa, kirol dendak, kirol ekintza pun-

tualak eta mankomunitate mailako informazioa ematen da.

Guztira 3.000 ale argitaratu dituzte eta kirol elkarteen artean banatu dituzte.

Gidaren bat eskuratu nahi duenak Udaleko Kirol Zerbitzura jo dezake.

### Deba Garaiko txapelketa zirkuitoa

Azkenik, Deba Garaiko kirol zerbitzuek pala, esku-pilota, tenis, frontenis eta squash txapelketen zirkuitoa antolatuko dutela adierazi zuten. Urtean zehar kirol bakoitzeko 3 txapelketa antolatuko dituzte eta txapelketa horietan emaitza onenak lortzen dituenak sari bat jasoko du. Inskripzioa kirol zerbitzuko bazkideentzat 1.000 PTA kostatzen da eta gainontzekoentzat, berriz, 2.000 PTA. B

## Axen Garitanok hogeigarren postuan bukatu du azken urteetako Pirenaren probarik gogorrean

**Axen Garitanok** 20. postuan bukatu du txakur lerekin Formigaletik (Aragoiko Pirinioa) La Molinaino (Kataluniako Pirinioa) egin den Pirena lasterketa. Lasterketaren aurreko egunean bizkarrean lesio bat izan zuen eta horregatik egindako, postuak meritua handiago du. "Lasterketara joan aurretik bizkarrean le-

sio bat izan nuen eta medikuarengana joan behar izan nuen, min handia bainuen. Lasterketak iraun dituen 11 egunetan, berriz, oso ondo ibili naiz eta ez dut minik izan. Orain, berriz, jota nago. Pirenaren alturan ibili gara eta altuera aldaketarekin nahiko jota nabil" esan digu Axenek. Egindako lasterketarekin oso pozik dago eta,

batez ere, La Molinako etapazpimarratzen du Garitanok: "La Molinan oso ondo ibili nintzen, 12. postuan bukatu nuen eta.

Gainera, aurtengo Pirena oso gogorra izan da, izan ere, eguraldi hotza egiteaz gain, etapak oso aldapatsuak ziren. Behetik gora asko kostatzen zitzaidan, baina goitik behera denbora

irabazten nuen". Asteburu honetan Formigalera joango da Estatuko txapelketako proba batean parte hartzera. Bestalde, apirilean Gorlako txakur leren lasterketa antolatzeko asmoa dutela esan digu Garitanok. Oraindik Udalarekin eta proba antolatzen duten lagunekin hitz egin ez duen arren, lasterketa jokatu du. B

Irizar 2  
76 14 95  
**JAUJA KIROLAK**

**LASAGABASTER**  
ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.  
Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 79 27 27 / 79 13 55

**1. ETXEBIZITZAK**

**Saldu**

Pisu amueblatua salgai herri erdian. 76 06 64.

Pisua salgai A. Fleming kalean. 76 56 99.

Pisua salgai Donostian, Amaran. 45 85 09.

Pisua salgai Aranerrekan. 76 50 50.

Barrenkalen apartamentua salgai. 76 56 41/76 04 69.

**Errentan hartzeko**

Pisua alokairuan hartuko nuke. 76 11 12.

Pisua hartuko nuke alokairuan. 76 41 16.

Pisu txiki bat alokairuan hartuko nuke. 76 04 57.

**Erosi**

Pisua erosiko nuke Bergaran. 76 57 74.

**2. GARAJEAK**

**Saldu**

Garajea salgai Bolun.

# Iragarki sailkatuak

**Iragarki sailkatuen sailean oso erreza da zurea jartzea.**

Deitu 76 03 97 telefonora edo zatoz Berrigarara. Partikularren iragarkiak doan jarriko ditugu. Inmobiliaria edo auto kontzesionarioenak, ostera, 1.100 PTA ordaindu behar da modulo bakoitza. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Eguazten eguerdia baino lehen jasotako iragarkiak argitaratuko ditugu.

**Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!**

**1. ETXEBIZITZAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Etxe konpartituak  
Bestelakoak

**2. GARAJEAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**3. LOKALAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**4. INMOBILIARIAK**

**5. LANA**

Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**6. IRAKASKUNTZA**

Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**7. AUTOAK/MOTOAK**

Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**8. AUTO KONTZESIONARIOAK**

**9. ANIMALIAK**

Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**10. DENETARIK**

Saldu  
Erosi  
Eman  
Hartu  
Trukatatu  
Galdu  
Aurkitu  
Bestelakoak

**11. HARREMANAK**

Agurrak  
Kontaktuak  
Deiak  
Bestelakoak

Garajea alokairuan Ibargarai 37an. 763376.

Garajea alokairuan Ibargarain. 76 16 38.

**Errentan hartzeko**

Garajea/ganbara alokairuan genuke. 7650 00.

Garajea alokatuko nuke. 7605 17.

**3. LOKALAK**

**Saldu**

Lokala salgai edo alokairuan Masterrekan. 150m<sup>2</sup>. 76 1189.

Lokala salgai A. Flemingean. 76 00 84/35 83.

Lokal komertziala salgai Martokuan. 76 25 67.

Arraindegia saldu edo alokatzen da. 76 32 70.

**Erosi**

Zona industrialean 70 m<sup>2</sup> inguruko lokala erosiko nuke. 76 29 95.

Deitu 76 47 99 telefonora.

Garajea salgai Masterrekan. 78 36 65 (20:00-22:00).

Garajea salgai Masterrekan. Deitu 76 24 57

telefonora.

Garajea salgai Kruz Gallastegin. Deitu 76 27 61 telefonora.

Garajea salgai Martokun. Deitu 76 35 50 telefonora.

Garajea salgai San Lorentzon. 76 45 60/51 45.

Garajea salgai Ibargarain. Milioi bat. Deitu 762161 telefonora.

Garajea salgai Espoioian. 76 18 28.

Garajea salgai San Antonion. Deitu 76 15 37 telefonora.

**Errentan emateko**

Garaje bikoitza alokairuan Torreekuan. 763032.

**Errentan emateko**

Bi pisuko lokala alokairuan San Pedron.

**IGELTSERITZA**  
**IGELTSERITZA**

**BLAK, S.L.**

A. Fleming 5  
BERGARA  
Mobilak:  
907 44 50 38  
907 46 57 38

**ARDATZA**  
*Brikolaketa*

Ateak eta zokaloak  
Horma armairuak  
Sarrailak eta manilak  
Koadroen enmarkazioak  
Era guztietako moldurak  
Apalak  
Kajoiak

Masterreka 4 behea  
☎ 76 18 93

**Bergara U Pair**

IRLANDA, ESKOZIA,  
INGALATERRA, FRANTZIA,  
ESTATU BATUAK.  
AU PAIR, TABERNARI, DENDARI...  
ETA BESTE MILA LANPOSTU.  
Telefonoa eta faxa: 76 26 06

**Aldoka Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

**iRUDI**  
*Erlojudenda Bitxitegia*

Ibargarai 2  
☎ 76 51 65

**iletxo**  
ileapaindegi mistoa

BEGOÑA ARZELUS

A. Fleming 7 BERGARA  
☎ 76 53 15



150 m<sup>2</sup>. 76 11 64.

Lau gelako bulegoa alokairuan Bolun (osorik edo gelaka). Deitu 76 58 91 telefonora.

Uberan 144 m<sup>2</sup>ko lokala alokairuan. Biltegi edo lantegi txiki baterako egokia. 79 05 63.

San Lorentzoko industrialdean 200 m<sup>2</sup>ko lokala alokairuan. 76 35 09.

Dietetika-loradenda traspasatzen da Berri-zen. Lorazaintzan aditutako jendea nahiago. 94 682 42 28 (denda orduetan)

#### Errentan hartzeko

Prezio onean, lokala alokairuan hartuko nuke Osintxun. 76 08 21.

#### 5. LANA

#### Eskaintzak

Andre batek zaharrak zaindu edo etxeko garbiketarako egongo lituzke. 76 00 90.

Neska batek astebukeretan helduak zaindu eta etxeko lanak egongo lituzke. 76 56 66.

Klinika auxiliarrak batek gaisoak edo helduak zaintzen ditu. 76 64 47.

Neska tituludunak administratibo lanak egongo lituzke. 907 94 06 67.

Neska batek orduka lan egongo luke. 939 472584.

Neska batek zaharrak zaindu (gauze ere bai) eta garbiketara lanak egongo lituzke (orduka). 76 58 10 (Maria Jesus).

#### Eskaerak

Taberna batean lan egiteko pertsona bat behar da. 76 51 20 (12:00etatik 13:00etara).

Eguzkitza erretagirako pertsona bat behar da sukalde lanetarako. 76 56 03 (11:00-16:00 edo 19:00-22:00).

Tabernari euskalduna behar da Kortazar tabernan. 76 20 62.

Haur bat zaintzeko emakume euskalduna behar da. 76 35 11.

Haurra zaintzeko neska behar da. 7634 43/23 78.

Emakume euskalduna behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. 76 05 53.

Etxeko lanetarako eta neskatila bat zaintzeko andre euskalduna behar da. 76 33 26.

#### 6. IRAKASKUNTZA

#### Eskaintzak

Ingeles klaseak ematen ditut. 76 17 18 (Jesus).

OHO klaseak Antzuolan. 78 71 32.

Ingeles klaseak ematen ditut. 76 53 88 (Rosa).

Mate, fisika eta kimika klaseak ematen ditut LOGSE 2 arte. 76 24 31.

Mate klaseak ematen ditut. 76 03 72 (Nerea).

Lizentziatu batek mate, fisika eta kimika klaseak ematen ditu. 76 70 40.

Fisika, informatika eta mate klaseak. 76 46 03.

OHO eta BBB klaseak ematen dira. 76 33 26.

Pintura eta marrazki klaseak ematen dira. 76 03 83.

#### Eskaerak

Ingeles klaseak jasoko nituzke bertokoa den

batengandik. 76 38 71 (Larraitx).

Frantses irakaslea behar da. 76 06 87.

#### 7. AUTOAK/MOTOAK

#### Saldu

Apirila rally motorra (49 c.c.) salgai. 76 62 24.

Kawasaki Vulkan motorra salgai. 76 70 21.

Renault-19 Chamade TXE kotxea salgai. SS-AF, egoera onean. 76 11 20/76 30 12.

Audi 90 kotxea salgai. 1988koa, egoera onean. 76 35 09.

Fiesta XR2 salgai. BI-AB. 175.000 PTA. 79 37 68.

Suzuki Hard Top 4x4 salgai. Grisa. 5 martxaduna eta estriboetako babesgarriekin. 79 09 92 (13:00-16:00).

#### 9. ANIMALIAK

#### Saldu/Eman

Pastor aleman txakurkumeak saltzeko ditut. Interesik izanez gero, deitu 76 08 21 telefonora (Unai).

Pastor aleman txakurkumeak (arrak) oparitzen ditut. Telefonoak: 78 19 43/78 22 41.

Kruzeak egiteko pit-bull arrazako txakurra eskaintzen dut. Telefonoa: 929 81 81 22 69.

Setter ingeles arrazako lau txakurkume salgai. Abenduaren 19an jaioak. 76 51 38 (Joseba).

#### 10. DENETARIK

#### Saldu

Logela berria salgai: bi ohe, ikasketa mahaia, liburu apalak, altzari txikiak. 76 43 37.

Mendi trabesiako Nordica TR9 botak salgai, 42-43 zenbakia. 75 16 80 (Jon).

Denda baterako moduko apala, mostradorea, euskarria eta makina-erregistradora prezio onean salgai. 76 25 67.

Gasteizera eguneroko joan-etorria egiteko, kotxea konpartitzeko jendea behar da. 76 12 97 (Antonia).

Bilbon pisua konpartitzeko neska behar da. Unibertsitatetik 20 mi-

nutura. Deitu (94) 467 63 14 telefonora (Sonia edo Ana).

Gazteentzako altzariak saltzen ditut. 20.000 pezeta. 76 30 93.

Pioneer musika-ekipoa salgai. 907 40 28 27.

Vitus bizikleta salgai, egoera onean. Deitu 76 08 21 telefonora (20:00-22:00).

Altzariak prezio onean salgai. Aukera ederra. Deitu: 76 30 93 telefonora.

Frigorifikoa salgai, 125 v. 50 litroko termo elektrikoa. Deitu 76 47 78 telefonora.

#### Erosi

Ibertreneko materiala erosiko nuke. 76 03 72.

Diska-singleak erosten ditut. Deitu 52 67 77 telefonora.

#### Galdu

Foxterrier antzeko txakurkumea galdu dugu. 4-5 hilabetekoa, marroiska-beltza, Fox izenekoa. Lepoko berdea. Deitu 58 50 20 telefonora.

## EUSKO JAURLARITZA

HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA  
Otaola hiribidea 29, EIBAR

### 1997/98 IKASTARORAKO MATRIKULA LIBREA

Kartazalak jasotzea otsailan zehar.  
N.A.N. BEHARREZKO DA.  
Informazio gehiago 20 06 18 telefonon.

## LOS CAZADORES

### TABERNA

Zubieta 26  
☎ 76 48 08

Goizeko 7etatik zabalik

gosariak plater konbinatuak pintxoak pizzak



Gozogintzan  
aintzindari.


## MARTXE ARANA



olio eta guache  
erakusketa

NAHIKARI taberna  
Masterreka 20 Tf. 76 57 71

# Otsailean zehar...





CD edo kasetea  
erosteagatik,  
deskontua:

2 CD edo kasete:

3 CD edo kasete:

**% 10**  
**% 20**  
**% 30**



**ETXEPARE-BILINTX**  
**LIBURUDENDA**



Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12 ☎ 76 40 50 BERGARA

*Hauetan eta beste askotan!*

## Zatoz gure Bergarako Saldu Osteko instalazioak ezagutzera.



**Pneumatiko berriak behar dituzu?**

Erabil itzazu Renault Menu Horiaren abantailak.

**5.738**

muntaketa eta gurpil-berdinketa dohainik

**Pta.tik**



**TALLERES MECA**

Amillaga, 5 - BERGARA - Tel. 76 40 68

**RENAULT**

kontzertua

# Soinu eta teknologia berriak

## 2 kate eta Bad F-Line taldeak Jam-en zapatuan

**Bi kate taldeak Bad F-Line arrasatearrek batera joko du bihar, zapatua, gaueko 10etan Jam aretoan. Sarrerak 700 pezetan jarriko dira salgai.**

Mikel, Anestesia eta Negu Gorriak taldeetako baxuak eta Izaskun Forkada abeslariak osatzen duten 2 kate taldeak "Bide laburra", joan den urrian grabatutako disko kantuak joko dituzte. Ministry taldea entzun eta gero, Mikelek techno eta trash metal estiloak fusioatzeko ideia ekin zion eta lan horren lehen emaitza Esan Ozenki diskaetxeak kaleratutako "Bide laburra" diskoa dugu.


Zuzeneko emanaldietan dantzek eta koreografiak ere berebiziko garrantzia daukate. Mikel eta Izaskunekin batera, Amaia Alkorta (dantza), Txetxus eta Ima (eszenografia) eta soinuaz ar-

duratuko diren Kaki eta Homes izang dira Amillagako aretoan bihar.

Bad F-Line taldeak, berriz, musika industrial deritzana egiten du. Bi sintetizadore, gitarra eta ahotsa erabiltzen dituzte zuzeneko emanaldietan eta euren abestietan, samplerrak eta loop aparailuak erabiliz, filmek edota beste kantari batzuen ahotsak integratzen dituzte.

Besteak beste, Alien eta Blade Runner filmeen soinuak "lapurtu" dituzte eta konposaketak egiteko ordenagailuaz baliatzen dira. Arrasateko Shot estudioetan grabatu dute euren lehen diskoa eta diskoak harrera ona izan du prentsa espezializatuaren aldetik. Bad F-Line Txema (ahotsa, baxuak, sintetizadoreak), Iñaki (programaketa, erritmoak), Pako (gitarrak) eta Rakelek (ahotsa eta sintetizadoreak) osatzen dute. B

erreseinak



Ibon Sarasola  
**Euskara batuaren ajeak**  
Saiakera

Euskara batuak hogeita hamar urte bete ditu, Arantzazun, bere kasa oinez hasi zenetik. Garai hartan erabaki ausartak hartu ziren, lau literatura euskalkiak batzeko asmotan. Orain ordea, praktikan bi euskalki aurkitzen ditugu: Iparraldekoa eta Hegoaldekoa, lehena frantsesaren mende samarrean hartua eta bestea espainolak erabat higatua. Sarasola, lemari (bere ustez) kolpe zuzentzailea ematen saiatu da liburu honetan. Hiztegi eran idatzia.


- Alberdania. 288 orr. 2.300 PTA



Parafünk  
**Epilogo**  
Funky

Javi Pez-ek urteak daramatza berak sortutako Parafünk proiektuarekin: sanplerrak eta programatutako soinuak erabiliz, dance eta funkaren il-dotik. Epilogo izeneko disko honetan, 93tik 97ra bitartean sortutako abestiak jasotzen dira. Tarte horretan Javi Pez-ek musikari lagun askorekin lan egin du, baina 1996az geroztik, Mikel Abrego (Bap eta Negu Gorriak taldeetan aritutakoa), Alberto Bosch eta Mikel Azpirozekin batera ari da lanean Parafünk-en. Epilogo honetan, ohiko funk tankerako 13 abesti aurkituko dituzue, baita soinu raperoak ere. Oinarri erritmikoa eta hammond, rhodes eta teklatuak nabarmentzen dira.

- Novophonica. 2.200 PTA



Bad F-Line eta 2 kate taldeek disko bana dituzte kalean eta zapatuan Jam-en aurkeztuko dituzte.

**TOKI-ONA**  
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txitxizotzak  
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi 1 Tf. 76 39 53

Tapizeriak  
Moketak  
Alfonbrak



Kruz Gallastegi 3, BERGARA ☎ 76 07 37

Eta orain  
gazteendako,  
umeendako eta ume  
jaioberriendako  
altzariak

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

**Ezker eskuma**

1. Jolastokia. 2. Ugaztun mota. Eskas. 3. Kimikan aditua. 4. Anai-arrebaren seme-alaba. Islandia. Kontsonantea. 5. Sodioa. Juntagailua. Hiru. 6. Tona. Lehenengoa. Urte-saioi. 7. Sastraka. Esfera forma duten objektuak. 8. Urkabe. 9. Nafarroako herria. Gandu. 10. Suari dariona. Janzki mota. Sufrearen sinbolo kimikoa.

**Goitik behera**

1. Jakinduria haundikoak. 2. Hegazti mota. Zuhaitz mota. 3. Gernikako auzoa. Librea. 4. Nafarroako herria. 1996an. 5. Lehortu, idortu. Mila. Kontsonantea. 6. Berrogeita hamar. Bokala. Mea mota. 7. Atmosferako fenomeno. Pluralean, mila kilo. 8. Krisia. 9. Oinarrizko edaria. Laido. 10. Interjekzioa. Toka, dio. Osmioa.

**Soluzioa**

9. Ura Irain. 10. Ait Ziok. Os. 7. Furi. Tonak. 8. Kristialdia. 5. Sikatu. M. J. 6. L. A. Arbela. 3. Lumo. Askea. 4. Arbe. Jaz. 1. Jakintsuak. 2. Okila Arte. Goitik behera

10. Kea. Jaka. S. 9. Atez. Laino. 7. Sasi. Bolak. 8. Urkamendi. 5. Na. Eta. III. 6. T. A. Urtaro. 3. Kimikaria. 4. Iloba. Is. Z. 1. Jolastokua. 2. Akuri. Urri. Ezker eskuma

bonofotoa



Miguel Angel Elkorobereziabar

**Zein da elkarte honen izena?**

Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du Berrigarak. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Tartufo** jatetxean izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Juan Azkaraterentzat** izan da: Panaderokua jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Juani! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Masterreka kalea eta Udaletxea**. Galde Debalde: **1-B, 2-C, 3-A**.

galde debalde

**Arretaz irakurri duzu Berrigarara? Ea galdera hauek zuzen erantzuteko gauza zaren!**

- Zenbat gutun jaso dira Amodiozko Gutunen Lehiaketan?  
A- 194  
B- 134  
C- 98
- Zein da Ibon Sarasolak kaleratutako azken liburua?  
A- Berriro igo nauzu  
B- Kilikolo  
C- Euskara batuaren ajeak
- Non ospatzen dira San Blas jaiak?  
A- Murinondon  
B- San Prudentzion  
C- Uberan

**BONOFOTOA**

**GALDE DEBALDE** 1: \_\_\_\_\_ 2: \_\_\_\_\_ 3: \_\_\_\_\_

Izena-deitura: \_\_\_\_\_ Telefonoa: \_\_\_\_\_

Ekarri edo bidali txartela eguazten eguerdirako Berrigarara! **AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!**

San Juan auzoa,  
Elgetarako bidea, Bergara.  
Tf. 76 35 51.

**Alaitzekin batera Euskal Herriko bikoterik ezagunenetako bat osatzen du. Euren lehen diskoak iaz 90 bat emanaldi ematera bultzatu zituen. Aurtengo Amodiozko Gutunen Lehiaketako epai-mahaian izan dugu 21 urteko oiartzuarra.**

# Maider Zabalegi

**Zu zeu maiteminduta zaude?**

Hitz hau neure buruan dabil, esanahi baten bila.

**Eta zer da maitasuna zuretzat?**

Barrutik sutan jartzen duen zerbait eta ilusioz eta baita tristuraz ere betearazten nauena.

**Jasotako lehen muxua gogoratzen duzu?**

Jaio nintzen egunean, kirofanoan, aita eta amak!!

**San Balentin eguna ospatzen duzu?**

Ahal dudan egun guztietan.

**Amodiozko gutunik idatzi duzu sekula?**

Bai.

**Nola hasiko litzateke zuk idatzitako gutuna?**

Hobe ez esatea.

**Maitalearekin, kartaz ala telefonoz?**

Nahiago aurrez aurre.

**Korreo elektronikorik erabiltzen duzu?**

Ez.

**Zerk lotsatu eragiten dizu?**

Gauza pilo batek lotsatu eragiten dit.

**Mutil batengan, zertan fijatzen zara lehenbizi?**

Begiradan.

**Zer da besteengan gehien baloratzen duzuna?**

Umiltasun eta izakera.

**Sexua, maitasun barik bai ala ez?**

Orain maitasunarekin nahiago.

**Pornografia ala erotismoa?**

Biak.

**Fideltasunik eza onartuko zenuke?**

Esango balit eta konfidantza egonez gero, bai.

**Zure gorputzeko atalik gustokoena?**

Eskuak.

**Erromantikoa zara?**

Bai eta oso.

**Lorak atsegin dituzu?**

Bai, hain politak dira denak...

**Musikarekin, plazaz plaza, asko ligatzen da?**

Nik batere ez.

**Negar egin duzun azken aldia?**

Atzo (domekan).

**Barre, zerekin egiten duzu?**

Gauza askorekin.

**Mania bat.**

Oinak bustitzea.

**Kolore bat.**

Urdina.

**Liburu erromantiko bat?**

"Romeo eta Julieta", Shakespeare-ena.

**Amodiozko kanta bat?**

"Ella baila sola"-ren edozein.

**Amets bat?**

Egunero egiten dut, esna nagoela ere bai.



## JAZMIN

*Ileapaindegia*

**IREKI BERRIA. GUSTATUKO ZAIZU.**

*Espoloia 4, behea. BERGARA. Telefonoa: 76 58 80.*



**BEREZITASUNAK:**  
BIZKOTXOAK  
ERRELENOAK  
TOSTOIAK

**MUJIKA GOZOTEGIA**

Artet kale, 3 BERGARA  
☎ 76 10 34

**LONBIDE**  
ONETAKOAK



Bidekurutzeta 5  
BERGARA  
☎ 76 10 57

**MARGA JANTZIDENDA**  
ERREFORMAK DIRELA ETA,  
OTSAILEAN **LIKIDAZIO OSOA!!!**

Zatoz dena agortu aurretik!  
AZKEN EGUNAK!

MARGA JANTZIDENDA, SAN PEDRO 20 TF/F. 76 05 37



## 1964ko San Pedrokoen jaunartzea

Jaunartzeak udaberrian izaten badira ere, oraingoan aurreratu egin gara, eguraldia bezala. Argazkia aspaldikoa da, orain dela hogeitasei urtekoa eta bertan agertzen direnak, gaur egun 34 urte dituzten neska-mutikoak; banaka bat kalez jantzita eta gehienak uniformez: mutilak marineru eta neskak zuriz.

Hona hemen argazkian agertzen direnen izenak, goiko ilaratik hasita eta ezkerretik esku-mara:

**Lehengorren ilaran:** Josune Urzelai, Kristina Arreseigor, Pili Ursua, Eva Ormaetxea, Elena Solana, Karmele Garitano, Mari Karmen Agirre eta Angela Gonzalez.

**Bigarren ilaran:** Maria Jesus Solana, Mirari Lazkano, Mari Nieves Zabaleta, Manoli Burgos, Maria Mujika, Maria Jose Etxeberria, Miren Azkarate, Manoli Jimenez, Maria Jesus Lopez, Maria Jose Lazkano eta ezezaguna.

**Hirugarren ilaran:** Ezezaguna, Miren Pildain, Celeste Millan, Esther Torre, Idoia Alonso, Juanita Gutierrez, ezezaguna, Mari Karmen Dobao, Esperanza Villar, Dorleta Agirre, Lourdes Ganuza, Karmele Rementeria eta Isabel De Pedro.

**Laugarren ilaran:** Seco, Luis Perez, ezezaguna, Martin Arriaran, Jesus Mari Aranes, ezezaguna, Javi Garcia, J. M. Sanz, Jose Manuel Hers, Javi Alfaro, Jesus Gardoki, ezezaguna, ezezaguna, eta Juanjo Domenech.

**Bosgarren ilaran:** Jose Antonio Luque, ezezaguna, Alberto Lalinde, Joseba Alberdiñigo Beain, Fernando Sanchez, Pablo Rodriguez, Sabino Duran, Rafael Otero, "Peito" Castelo, Miguel Angel Romo, Carlos Esain, ezezaguna, Martin Gamendia eta Antonio Astiazaran.

Argazkia: Marcial Moreno

**Kizkur**

Ilcapaindegia  
Solariuma

Bolu 51 Tf. 76 50 32



**umelaga**

JATETXEA


ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA  
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 76 20 21

Industria  Industriaren  
hornikuntzak UNIFE alde

**MEMESA S.L.**

Nafarroa etorbidea 9 ARRASATE  
Tf. 79 42 22 • F. 79 47 89  
Santa Kruz 25 ARETXABALETA  
Tf. 77 11 75 • F. 77 13 08

 **IRURAK** PINTURAK O.E.

**ERA GUZTIETAKO LANAK - PAPER PINTATUAK**  
**MOKETA ETA SINTASOLA - HAREA ZORROTADA**  
**IZTUKU ESPONJATUA - IZTUKU FALTSUA**

**AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA**  
**TELEFONOA eta FAXA: 76 09 32**



**Kiñu**



**ZURE JAUNARTZE ARGAZKIETARAKO**  
**TXANDA HAR EZAZU.**

**Kiñu Argazkidenda, Barrenkalea 35. Telefonoa: 76 58 05.**



UNITED COLORS  
OF BENETTON.


Maalako Errabala, 13 • ARRASATE



**OKENDO  
KIROLAK**

**KIROL MODA GUZTIA  
BEHERAPEN BEREZIEKIN!**

- TXAMARRAK
- TXANDALAK
- ZAPATILAK



**DESKONTUJAK!**

Maalako Errabala, 13 behea • ARRASATE • Tel.: 79 92 76